

Eroa
Bertozzo inspektorea
Maria Feletti kazetaria
Komisarioa
Pisani inspektorea
Agentea

Aitor Mazo
Ramon Ibarra
Ane Gabarain/Esther Remiro
Kike Díaz de Rada
Asier Hormaza
Jose Ramon Soroiz/Mikel Martinez

Eszenografia
Jantziak

Max Galenzel, Estel Cristià
Elisabet Alemany, Bàrbara
Glaenzel

Pantailako irudia
Argiztapena
Zuzendari laguntzailea
Zuzendaritza teknikoa
Erregidorea
Argi eta soinu teknikaria
Musika grabazioa
Argazkiak
Diseinu grafikoa
Eszenografiaren
eraikuntza
Komunikazioa
Administrazioa
Ekoizpen exekutiboa
Ekoizpena

Raimon Rius
Josep Maria Cadafalch
Jokin Oregi
Edi Naudó
Lucía Ocariz
Josetxo Almandoz
Hiso
Enrique Moreno
Jaume Bach
Tallers Pascualain S.L., El Teler,
Serinkjet
Maite Arrese, Joseba Gil
Maite Gorrotxategi, Elena Loyarte
Koro Etxeberria, Joseba Gil
Tentazioa produkzioak, Zitzània
Teatre, Teatre de Calaix
Gonzalo Centeno, Arantxa Icera,
Miguel Angel Tamayo, Marivi

Eskerrak



Anarkista baten ezusteko heriotza

Dario Fo

Itzultzailea: Julia Marin

Pertsonaiak:

Eroa

Bertozzo inspektorea

Pisani inspektorea

Agentea

Komisarioa

Maria Feletti kazetaria

LEHEN ZATIA

Lehen eszena

Milango Komisaria Nagusiaren bulegoetako bat. Bulego-mahaia, armairu bat, hainbat aulki, idazmakina, telefono bat, leiho bat, bi ate. Bertozzo inspektorea eta agente bat sartzen dira. Agenteak esekitokian jartzen ditu inspektorearen berokia eta kapela.

BERTOZZO.- *Publikoari* Arratsalde on/Gabon. Zuen baimenarekin, neure buruaren aurkezpena egingo dut: Francesco Giovanni Battista Giancarlo Bertozzo nauzue, polizia-inspektorea. Hau nire bulegoa da, gure Komisaria Nagusiaren lehen solairuan, Milanen. Komisaria honek ospe handia hartu du duela zenbait aste izandako gertaera malapartatu baten erruz: anarkista bati galdeketa egiten ari zitzaizkion honen antzeko bulego batean, baina hiru solairu gorago, eta leihotik behera bota zuen bere burua. Gertakizun harrez geroztik, nire lankideek deklaratu zuten, arrazoi handiz deklaratu ere, gertatutakoa suizidioa izan zela. Baina ikerketaren berediktu ofizialak aditzera eman zuenaren arabera, anarkistaren heriotza “ezustekotzat” hartu beharrekoa zen. Ikus

dezakezuenez, berediktua anbiguo samarra da. Harrezkero, kalumnia, akusazio, manifestazio eta abarrek zipriztindu dute eraikin hau astetan zehar. Eta giro hori ez da preseski egokiena ni neu bezalako polizia ondradu batek bere lanbide gogorrean aurrera egin dezan. Bulego honetatik mota guztietako jendilajea pasatzen da: lapurrak, drogazaleak, exhibizionistak, iruzurgileak, esku-luzeak eta gaizkileak oro har. Azken batean, hementxe egiten dugu lehengaien aurreneko hautaketa. Sar dadila hurrengoa. *Agentea irten eta Eroarekin itzultzen da. Eroa mahaiatz bestaldean esertzen da. Freuden dizipuluaren klitxea da, itxuraz. Plastikozko poltsa bete batzuk daramatza.* Gogorarazi behar dizuet Dario Fok, komedia goibel eta dekadente honen egileak, argi erakusten duela poliziari dion betiko gorroto irrazionala, mundu honetako ezkertiar guztiek egin ohi dutenez. Ziur naiz une honetatik aurrera era guztietako iseka antiautoritarioak egingo direla nire kontra. *Agenteak arratoi bat aurkitzen du sagu-artean harrapaturik, eta garrasika hasten da. OFF: Akatu ezazu, harrapatu...* Mesedez, har itzazu gogoan nire nerbioak! Hurrengoa! *Txartel bat hartu, aztertu eta Eroari hitz egiten dio.* Hau ez da, orduan, beste baten itxurak egiten dituzun lehen aldia. Ikus dezagun, guztira atxilotu zaituzte... *Karpeta bateko paper artean bilatuz.* Pare bat aldiz kirurgialari zinela, beste behin itsas ingeniaria, hiru aldiz apezpikua, guztira...

EROA.- Hamaika atxiloketa. Baina hartzazu kontuan, inspektore, ez nautela sekula kondenatu. Nire ziurtagiri penalak garbi-garbi segitzen du.

BERTOZZO.- Ez dakit zer trikimailu erabili dituzun zeureari eusteko, baina oraingoan dotore geratuko zaizkizu penalak. Zin egiten dizut!

EROA.- Bai, nik ulertzen dizut, inspektore. Tentazio handia da penal garbi-garbi batzuei eskua sartzea.

BERTOZZO.- Oso barregarria. Salaketa honek dioenez, psikiatratzat eta Paduako Unibertsitateko irakasletzat aurkeztu duzu zeure burua. Hori iruzurra da.

EROA.- Iruzurra, bere senean dagoen gizon batek eginenez gero, baina ni eroa naiz. Ero patentatua naiz. Begira ezazu historia klinikoa. *Orri bat ematen dio Bertozzori*. Hamasei aldiz ospitaleratu naute, arrazoi berberagatik beti: histriomania. Grekotik dator: "histrioi"; aktore esan nahi du. Pertsonaiak antzezteko mania daukat, beti desberdinak. Baina, *verité* antzerkiaren aldekoa naizenez,

AGENTEA.- A, variete!

EROA.- Ez, *verité*. Kaleko jendearen premia daukat nire konpainia osatzeko, antzezten ez dakien jendearen premia. Gainera, nik ez daukat dirurik aktoreei ordaintzeko, eta, adiskiderik ez daukadanez hiriburuan, Kultura Ministerioak ez dit diru-laguntzarik ematen.

BERTOZZO.- Orduan, esplotatu egiten dituzu zeure aktoreak.

EROA.- Nik ez dut inor esplotatu.

BERTOZZO.- Nire oharren arabera, psikiatrarena egin zenuenean, berrehun mila lira kobratu zenituen bisitaldi bakar batengatik.

AGENTEA.- Nik horrekin erretiroa har nezake denboraldi baterako.

EROA.- Jakinarazten dizut horixe dela ohiko tarifa nire tituluak dituen profesional batentzat.

BERTOZZO.- Zer titulu? Zenbat denbora eman duzu ikasten?

EROA.- Hogei urte segidan, hamasei eroetxetan. Ni bezalako milaka ero behatu ditut, egunez egun. Jeinu bat naiz! Informa zaitetz, eta esango

didazu ez ote nion diagnostiko perfektua egin Palermoko neurasteniko aberats hari.

BERTOZZO.- Perfektuak, berrehun mila lira horiek dira perfektuak.

EROA.- Tarifa funtsezkoa da tratamenduan. Freudek zioenez, ordainsari mamitsua da erremediorik hoberena bai gaixoarentzat, bai medikuarentzat ere.

BERTOZZO.- Lastima gaixoak zu salatu izana! Hau al da zure txartela?

EROA.- Hori da, bai.

BERTOZZO.- *Irakurriz*. Antonio Rabbi irakaslea, psikiatra. Irakasle ohia Paduako Unibertsitatean. Antonio Rabbi izena duzu?

EROA.- Ez, zehatz-mehatz.

BERTOZZO.- Hara, ba!

EROA.- Baina irakaslea naiz.

BERTOZZO.- Benetan?

EROA.- Bai, Marrazketa Artistikoa eta Ornamentala irakasten dut Jesusen Bihotz Sakratuaren eta Andre Maria Graziaz Betearen ikastetxeko gau-eskolan.

BERTOZZO.- Baina hemen psikiatra jartzen du.

EROA.- Koma baten ondoren?

BERTOZZO.- Bai.

EROA.- Eta puntu baten aurretik?

BERTOZZO.- Bai.

EROA.- Horixe!

BERTOZZO.- Horixe, zer?

EROA.- Entzun ondo: Antonio Rabbi. Koma. Psikiatra. Puntu. Ba, begira, “psikiatra naiz” esatea ez da inongo iruzurra. Gauza bera litzateke esatea “botikaria naiz”, edo “belarjalea”, edo “artritikoa”. Horrek ez du esan nahi ikasketak egin ditudanik. Aizu, ongi ezagutzen dituzu italieraren gramatika-arauak?

AGENTEA.- Hori da jakinduria!

BERTOZZO.- Isilik! Eta “Paduako Unibertsitateko irakasle ohia” zaren kontu hori?

EROA.- Zer jartzen du “ohia” baino lehen?

BERTOZZO.- Zer?

EROA.- Beste koma bat. Ez al duzu ikusten?

BERTOZZO.- Egia da, konturatu gabe nengoen.

EROA.- Aja! Konturatu gabe zeunden, eta espetxera bidali nahi nauzu.

BERTOZZO.- Burutik eginda zaudel!

EROA.- Badakit hori.

BERTOZZO.- Eta zer aldatzen du koma batek?

EROA.- O! Ezer ez, sintaxiaren eta puntuazioaren araurik oinarrizkoenak ezagutzen ez badituzu. Esango didazu zer ikasketa egin dituzun eta nork eman dizun titulua... Zaude pixka batean, utzidazu bukatzen. Koma da auziaren giltzarria. Koma baldin badago “ohia” baino lehen, erabat aldatzen da perpausaren esanahia. Koma baten ondoren irakurleak aire pittin bat hartu behar du, intentzio-etenalditxo bat eginez: “Irakasle” eta gero imintzio arin baten ondoren: “ohia” Ikusten duzu? Esanez bezala: “txantxa gutxiago, nork sinetsiko dizu?” Beraz, honela irakurri behar da: “Antonio Rabbi, Psikiatra. Irakasle, ohia **(oi, oi, ja)** Paduako Unibertsitatean”. Ikusten duzunez, behar bezala irakurriz gero txoriburu bat baizik ez litzateke nahastuko.

BERTOZZO.- Hortaz, ni txoriburua naiz?

EROA.- Ez, ez, baina ez zaude oso jantzirik gramatika-kontuetan. Nahi baduzu, neuk emango dizkizut eskola batzuk, adiskide-prezioan. Ea, esadazu deklinabide-kasuen zerrenda.

AGENTEA.- Nor, nork, nori, noren...

BERTOZZO.- Nola?

EROA.- Bai, jauna! Bikain!

BERTOZZO.- Nahikoa da! Zu ez zaude inondik ere erotuta. Ni bezain erotuta zaude zu.

EROA.- Ez da harritzekoa, zure lanbideak aukera handiak eskaintzen ditu gorabehera psikikoak izateko. Utziko didazu begia aztertzen? *Betazala ukitzen dio.*

BERTOZZO.- Aski da! Deklarazioari helduko diogu?

EROA.- Neronek idatzi dezaket makinaz. Mekanografo-titulua daukat: ehun eta berrogeita bost pultsazio minutuko.

BERTOZZO.- Zaude hor geldirik, edo esku-burdinak jarriko dizkizut.

EROA.- Ezin duzu halakorik egin! Edo ero-alkandora edo batere ez. Kode Penalaren 122. artikulua: “Baldin eta norbaitek baliabide ez-kliniko edo ez-psiatrikoak erabiliko balitu buru-gaixo batekin, bost eta hamabost urte bitarteko kartzela-zigorrekin ordaindu beharko luke, graduazio-eta erreiro-eskubidea galduz”.

BERTOZZO.- Alajaina! Hortaz, lege-aditua ere bazara.

EROA.- Guztiak ezagutzen ditut! Hogeitik gora urte eman ditut zuzenbidea ikasten.

BERTOZZO.- Baina zuk zer dituzu, hirurehun urte, ala? Non ikasi duzu zuzenbidea?

EROA.- Eskolarik onenean: eroetxean. Bazen han paranoiko bat, epaitegi-idazkaria bera, eskolak ematen zizkidana. Erromatar Zuzenbidea, Zuzenbide Konparatzailea, Ekonomikoa. Justinianoren Kodea, Lonbardiako Zuzenbide Berezia, dena. Galdetu, galdetu...

BERTOZZO.- Ez daukat astirik! Zure dokumentuetan ez dut ikusi epailearena edo abokatuarena inoiz egin duzunik.

EROA.- A, ez! Abokatua, sekula ez. Hori ez dago niretzat egina: pasiboegia da. Nik gogokoagoak ditut segika ibiltzea, kondenatzea, erreprimitea... Torturatzeak txora-txora eginda jartzen nau. Sakonean, zuetako bat naiz, inspektore maitea. Hitanoz egingo diagu?

BERTOZZO.- Argi ibili. Erantzun ezazu: inoiz egin duzu epailearena, bai ala ez?

EROA.- Tamalez, ez dut oraindik horretarako aukerarik izan.

AGENTEA.- A ze pena!

EROA.- Eta gustura egingo nuke, gero! Horixe da-eta ofiziorik onena: ez dizute inoiz erretiroa ematen. Beste edozein langilek, berrogeita hamar edo hirurogei urte dituenean, lanetik bidalia izateko baino ez du balio. Ala, segi etxera! Antzarak ferratzera! Epaileekin, guztiz kontrakoa. Zenbat eta zaharrago eta pitzatuago egon, orduan eta kargu garrantzitsu gehiago; eta behin betikoak, gainera. Ikusi besterik ez dago nolako aguretxoak sartzen diren auzitegietan: zimelduak, dardaratiak, aldarte txarrekoak, betaurrekoak kate batetik zintzilik daramatzate, eta inoiz ez dakite non utzi dituzten.

BERTOZZO.- Mesedez...

EROA.- Isiltasuna epaigelan!

BERTOZZO.- Barka beza berorrek, epaile jauna.

EROA.- Gizakume horiek boterea dute nahi duten edonor nonahi eta noiznahi suntsitu edo salbatzeko. Eta zigorrak erabakitzen dituzte esanez bezala: "Euria egingo duela ematen du". "Zuk, berrogeita hamar urte; zuk, hogeita hamar; zuk, hogeitak bakarrik, gogoko zaitut eta." Aldarrikatu, legeak egin, agindu, epaitu. Lepoa egingo nuke halako pertsonaia antzetzearren! Isilik! Epaile Gorena! Jaun txit agurgarria, eseri bedi. O! Begira beza: hezur bat erori da. Ez da berorrena izango? Ez, ezinezkoa, ez zait jadanik batere gelditzen.

BERTOZZO.- Nahikoa da! Zeharo berotu didazu burua! Eseri eta zaude isilik!

AGENTEA.- *Esku-burdinekin mehatxatzen du.* Kontuz; bestela, esku-burdinak jarriko dizkizut.

EROA.- Ez ukitu, hozka egingo dizut eta!

AGENTEA.- Nori egingo diozu zuk hozka?

EROA.- Zuri! Ipurdian hozka egingo dizut! Ñam! Grrr! *Agenteari segika.*

AGENTEA.- Lagundu! Ikusten duzu, burutik eginda dago!

BERTOZZO.- Jarrizkiozu esku-burdinak.

AGENTEA.- Hozka egiten du!

EROA.- Eta kontuz ibiltzea duzue, amorruek jota nago eta. Txakur amorratu batek kutsatu ninduen, izterrean hozka eginda. Txakurra hil egin zen, baina nik edonor kutsa nezake oraindik. Grrr!

BERTOZZO.- Zertan ari zara? Harrapa ezazu! Alferra halakoa!

AGENTEA.- *Izuturik.* Baina kutsatu egingo nau!

BERTOZZO.- Eta, zu, zaude hor geldirik. Hitz ematen dizut utziko dizudala joaten.

EROA.- Ez nazazu bota, inspektore. Hemen, poliziarekin, hain gustura sentitzen naiz, hain babesturik. Utzidazu zurekin geratzen, kantari ipiniko ditut atxilotuak eta subertsiboak, badakit torturatzen aztarnarik utzi gabe, glizerinazko supositorioak egiten ere badakit...

BERTOZZO.- Kokoteraino naukazu!

EROA.- *Leiho aldera joan, zabaldu eta marko gainean esertzen da.* Ba, leihotik behera botako dut neure burua! Zenbatgarren solairuan gaude? Egin egingo dut!

BERTOZZO.- Neuk lagunduko dizut!

AGENTEA.- Inspektore, nahiko arazo izan ditugu jadanik leihoen kontura.

BERTOZZO.- Egia da, arrazoi duzu.

AGENTEA.- Horixe daukadala.

EROA.- Banoa...(Agur...)

BERTOZZO, AGENTEA.- *Ad libitum.* Eeeez...

EROA.- Salto egingo dut. Eta lurrean nagoenean, azken hatsa emateko zorian, eta kazetariak datozenean, kontatuko diet zuek guztiok bota nauzuela leihotik behera. Salto egingo dut!

BERTOZZO.- Zaude isilik, mesedez. Zatoz hona, ez dizugu minik egingo.

EROA.- Ziur?

BERTOZZO.- Hitz ematen dizut.

EROA.- Gogora ezazue 122. artikulua: “Probokazioak eta bortxakeriak buru-gaixo baten kontra”.

AGENTEA.- “Sei eta bederatzi urte bitarteko kartzela-zigorra eta erretiroa hartzeko eskubidea galtzea.”

EROA.- Ikasi egin du...

AGENTEA.- Horixe ikasi dudala... *Agenteak leihoa ixtean, Eroa ate aldera abiatzen da.*

EROA.- Ba, eskailera-begitik salto egingo dut!

BERTOZZO.- Itxi atea giltzaz, hartzazu giltza.

EROA.- Eta bota ezazu leihotik. *Agenteak bota egiten du.*

BERTOZZO.- Bai, bota ezazu! EZ! Sartzazu kaxoian, itxi kaxoia, hartzazu giltza... *Agenteak mekanikoki betetzen du agindutako guztia.*

EROA.- Sartzazu ahoan eta irentsi.

BERTOZZO.- Bai, irentsi ezazu. Ez! Ez, ez eta ez! Emadazu giltza hori! *Atea zabaltzen du. Zu, utikan, ospa hemendik! Eta, nahi baduzu, egizu salto eskaileratik behera. Egintzazu gogoak ematen dizuna! Azkenean, erotu egingo nauzu. Ez dit inork sekula halakorik egin.*

EROA.- Ez, inspektore, ezin didazu hori egin. Ezidazu bultzarik egin! Ez dut jaitsi nahi oraindik, hau ez da nire geltokia!

BERTOZZO.- Alde hemendik! *Kanpora botatzen du. Atea ixten du. Azkenean! Eskerrak Jainkoari! Zer ordu da?*

AGENTEA.- Gogorazten dizut bilera duzula Bellatti komisarioarekin, eta bost minutuko atzerapenarekin gabiltza.

BERTOZZO.- Eta zergatik ez didazu lehenago abisatu?

AGENTEA.- Lanpeturik zenbiltzanez...

BERTOZZO.- Zerri madarikatu horrek neure onetik atera nau. Goazen!
Ezkerretik irteten dira, eta eskuin aldetik Eroa agertzen da berriz ere.

EROA.- Zure baimenarekin, inspektore. Ez zaitez haserretu, nire dokumentazioaren bila nator, ez da besterik. Hara, inor ez dago eta! Primeran, neronek hartuko dut. Historia klinikoa, errezeta-taloitegia... Hara, salaketa. Hautsi egingo dut, eta kito. Ez dadila inor mugitu, justizia iritsi da eta. Eta salaketa hau norena da? “Lapurreta astungarriekin” Ba! Ezertxo ere ez, aske zaude. “Bidegabeko jabetzea” Huskeria. Ene, ur handiko arrainak: faltsutzea, desfalkua, prebarikazioa, influentzia-trafikoa, isilpeko fondoak... Zuek hementxe geratuko zarete, azpisuge alaenak. *Telefonoak jotzen du.* Bertozzo inspektorearen bulegoa. Plazer handia da zurekin hitz egitea. Nor zara? Ez, ez, sentitzen dut, baina, nor zaren esan gabe, ez zaizu jarriko. Nor? Zu zeu? Bertozzo, “leiho”-inspektorea da. Nola ni nor naizen? Entzun duzu, Bertozzo? Ezkertiarren borrhora galdetzen ari zait ni nor naizen. Egia esan, ez naiz zu bezain ospetsua, nik ez ditudalako botatzen neure zereginak leihotik behera. Ez al dakizu nor naizen? Asmatzen ez baduzu, ez zaitut Bertozzorekin jarriko. Nor naiz? Ez. Ez. Ezta ere. Anghiari? *Bere buruari.* Anghiari naiz? Bai, horixe bera, Pietro Anghiari komisarioa, oso ondo. Zer egiten dudan Milanen? Aizu, zergatik ez didazu esaten zer nahi duzun Bertozzorengandik? Ez, orain ezin du hitz egin. Esadazu niri. A, anarkistaren kasua. Nola, goragoko epailea bidali behar dutela? Ikuskatzaile moduko bat. Ministerioan ez datozela bat epaileak kasua artxibatzeke eman dituen argudioekin. Ministerioko horiek izugarriak dira: aurrena komeni zaie, eta gero atzera egiten dute... Nola, iritzi publikoa presioa egiten ari dela? Baina, ze presio egingo du, gizona? Ja, ja, ja. Bai, Bertozzo da, barrez lehertzen ari da. *Telefonoa urrundu eta barre egiten du.* O, eta keinu batzuk egiten ari da! Bertozzoko dio berak lasai asko barre egin dezakeela zerikusirik ez duelako, baina komisarioa eta zu kakaz lepo eginda zaudete, gero! Ja, ja! Kontu handiz garbitzeko esaten ari zait. *Puzkerra egiten du ahoarekin.* Prrrrt! Bai, bera izan da, puzkerra bota du. Etzazu horrela hartu, gizona, ihes egingo zion. Ikus dezagun. Zer nahi duzu? Dokumentu batzuk? Beheko kaxoian

daudenak. Bai, bai, anarkistaren heriotza artxibatzeke aginduaren kopia bat, zuen deklarazioen kopiak eta galdeketak. Bai, bai, oraintxe bidaliko dizkizuet. Aizu, ba, prestatzen hastea duzue, jakintzazu nolakoa den epaile hori. Izenik ba al dakizu? Marco Maria Malipiero. *Idatzi egiten du.* Eta Kasazio Auzitegiko lehen kontseilaria da. Ederra oparitxoa! Horixe ezagutzen dudala, zorrotza gizona! Aizu, besarkada bat! Itxaron, itxaron. Ja, ja, ja! Bertozzo da, oso gauza xelebrea esan du. Haserretzen ez bazara, kontatuko dizut. Oso ondo: ba, esan du epailearen bisitaldia amaituta Hegoaldera bidaliko zaituztela, Calabria-ra, han sotoan dutelako inspektorearen bulegoa! Ja, ja, ja! Harrapatu duzu? Sotoan! Ez al zaizu gustatu? Tira, zer egingo diogu, ba. Ados. Bertozzo, lurpeko inspektore izango denak, ikusi orduko, sekulako muturrekoa emango omen dizu. Aizu, bera jarriko zaizu. Prrrrt! *Puzkerra.* Gure maitasun guztiarekin. Agur! *Telefonoa eseki eta bila hasten da.* Ekiozu lanari, epaile jauna, minutu bakan batzuk baino ez dituzu eta. Aukera paregabea nire ikasketak frogatzeko. Kontura daitezela gai naizela hautatuen goi-mailako kategorian sartzeko. Jainko maitea, hau zirrara. Azterketa bat! Azkenean, azterketa bat! Zer diot nik! Doktore-tesia bezalakoxea da eta. Konbentzitzen baditut, katedra bat mereziko dut. Ea, behar ditudan dokumentuak. Denak al daude? Ea, artxibatze-agindua, Erromako anarkista-taldeari buruzko ikerketa. Primeran! *Zorro batean gordetzen du dena.* Listo. *Berokia eta kapela hartzen ditu esekitokitik.* *Bertozzo sartzen da. Ez du ezagutzen.*

BERTOZZO.- Egun on. Zer nahi duzu? Norbaiten bila zabilta?

EROA.- Ez larritu, inspektore, nire dokumentazioaren bila itzuli naiz, ez da besterik.

BERTOZZO.- Zu berriro! Ospa hemendik!

EROA.- Baina, hemen neurastenikoa da mundu guztia, ala? Batez ere, zure bila dabilen morroi amorratu hori: aurpegia txiki-txiki eginda utziko omen dizu.

BERTOZZO.- Nork?

EROA.- Bai, eguzkitarako betaurrekoak darabiltzan batek. Ez al dizu oraindik muturrekorik eman?

BERTOZZO.- Eta zergatik emango zidan, ba, muturrekoa?

EROA.- Puzker batengatik.

BERTOZZO.- Puzker bat?

EROA.- Tira, egia esan, bi, telefonoz.

BERTOZZO.- Baina, zer diozu? A, ulertzen dut: zure pertsonaietako bat da.

EROA.- Bai, bai, ikusiko duzu seigarren solairuko zure lankide horrekin.

BERTOZZO.- Pisani inspektorea?

EROA.- Horixe bera.

BERTOZZO.- Nahikoa da. Denbora gehiegi galarazi didazu. Zoaz hemendik behingoz!

EROA.- Betiko? *Musutxoak botatzen dizkio. Mua, mua! Bertozzok jotzeko imintzioa egiten du. Ondo da, banoa. Baina aholku bat nahi baduzu, makurtu ezazu burua inspektore hori ikusi bezain laster. Irten egiten da. Bertozzok hasperen egiten du. Hutsik ikusten du esekitokia.*

BERTOZZO.- Lotsagabe nazkagarri hori! Berokia eta kapela harrapatu dizkit! *Agente sartu berriari.* Bizkor, zoaz ero horren bila: nire berokia eta

kapela eraman ditu, eta agian paper-zorroa ere bai! Bai, nirea! Bizkor, ez dezala alde egin!

AGENTEA.- Zure aginduetara, inspektore. *Ate-buruan gelditu eta baten batekin hitz egiten du.* Bai, jauna. Bertozzo inspektorea, Brigada Politikoko Pisani inspektoreak zurekin hitz egin nahi du.

BERTOZZO.- *Altxatu eta ate aldera abiatzen da.* Hara, oraintxe jardundut ero batekin zutaz hizketan. Eta esaten aritu zait, ja, ja, pentsa, ikusi orduko, emango zenidala... *Atetik ukabil bat sartzen da ziztu bizian.* Bertozzo erori eta lurrean amaitzen du esaldia. Muturrekoa!

EROA.- *Beste atetik irteten da.* Esan dizut, ba, burua makurtzeko! *Ilun.* Musika, zirku-martxa bat, pailazoei sarrera ematen dien horietakoa. *Eszenaz aldatzeko adina denbora.*

Bigarren eszena

Argiak piztean, aurrekoarekin antz handia duen bulego batean gaude. Horma batean, presidentearen argazkia. Leioa zabalik dago. Eroa eszenan da, leio aurrean, ateari bizkar emanda. Pisani inspektorea sartzen da, sporteko jaka jantzita eta betaurreko ilunak.

PISANI.- *Agenteari ahopetik. Agentea aurreko eszenako bera da, baina orain bibote handia du. Hori al da?*

AGENTEA.- *Bai. Harro-harro eginda sartu da, ezta Jainkoa bera balitz ere! Zurekin hitz egin nahi omen du, eta komisarioarekin.*

PISANI.- *Eskuineko eskuari masajea emanaz. Egun on. Zer nahi duzu? Nire zain omen zaude.*

EROA.- *Buelta emanaz, eskua kapelara eramateko imintzioa egiten du. Egun on. Eskua begiratzeko dio. Minik hartu al duzu eskuan?*

PISANI.- *Ez da ezer. Plazer handia da zurekin hitz egitea. Norekin ari naiz?*

EROA.- *Agenteari. Ez al dugu elkar ezagutzen?*

AGENTEA.- *Ez dut uste, jauna.*

EROA.- *Pisaniri. Ezagutu nuen gotzain bat hori bera egiten zuena beti... Jesuita zen, jakina.*

PISANI.- *Litekeena da oker egotea, baina...*

EROA.- *Horixe zaudela oker. Zer esan nahi duzu, jesuiten hipokrisia ezaguna salatu nahian nabilela? Harira ez badator ere, jakizu ni jesuitekin ikasitakoa naizela. Baduzu ezer esatekorik?*

PISANI.- *Harriturik*. Ez, ezer ez, baina...

EROA.- Baina aipatu dizudan gotzaina hipokrita zen, gezurtia, eta masajea ematen zion beti eskuineko eskuari, zuk bezalaxe.

PISANI.- Aizu, baina...

EROA.- *Agenteari*. Deskuiduan, ba al duzu neba bikiren bat lanean, lehen solairuan?

AGENTEA.- Lehen solairuan? Ez dut uste, jauna.

EROA.- *Pisaniri*. Komeniko litzaizuke psikoanalistarengana joatea, gazte: masajearekin duzun obsesio horrek ziurtasun-eza adierazten du, errudun-sentimendua, asegabetasun sexuala. Esadazu, ba al duzu arazorik emakumeekin?

PISANI.- Esan behar al didazu, behingoz, norekin ari naizen hizketan?

EROA.- Marco Maria Malipiero irakaslea naiz, Kasazio Epaitegiko lehen kontseilaria.

PISANI.- *Zorabiatzeko zorian*. Jainkoarren, epailea!

EROA.- Erromako Unibertsitateko irakasle "ohia". "Ohia" baino lehen, beti bezala, koma bat.

PISANI.- Koma bat. Ez zintugun hain bizkor espero.

EROA.- Hain zuzen, horrexegatik erabaki dugu nire bisita aurreratzea. Ezustean harrapatu ahal izateko. Ez dizut trabarik egingo, ezta?

PISANI.- Inolaz ere ez! Horixe besterik ez genuen behar...

AGENTEA.- Eser zaitetz. Kapela ematen badidazu...

EROA.- Zeuretzat nahi baduzu: ez da nirea. Eta berokia ere ez. Komisarioari deituko diozu, mesedez? Lehenbailehen hasi nahi nuke.

PISANI.- Aizu, ez al litzateke egokiagoa zure bulegora joatea? Erosoago egongo ginateke.

EROA.- Ez al zen hemen gertatu anarkistaren pasadizo ilun hura?

PISANI.- Bai, hementxe.

EROA.- *Besoak zabaldu eta eseri egiten da. Ba, hementxe! Dokumentu batzuk ateratzen ditu maletatik. Pisanik ahopean hitz egiten dio agenteari. Inspektore, eskertuko nizuke nire aurrean ahots gora hitz egingo bazenu beti.*

PISANI.- Bai, epaile jauna, barkatu. Esaiozu komisarioari oraintxe bertan etortzeko, ahal baldin badu...

EROA.- Baita ezin badu ere.

PISANI.- Hori! Baita ezin badu ere!

AGENTEA.- Bai, jauna. *Irtten egiten da.*

PISANI.- *Telefonoa hartuz. Jar nazazu Bertozzo inspektorearekin...*

EROA.- Barkatu. Bertozzo horrek ba al du zerikusirik anarkistaren kasuarekin?

PISANI.- Tira, hain zuzen ere, bera da dokumentu-artxibategiko arduraduna.

EROA.- Ez da beharrezkoa hari deitzea. Hementxe daukat guztia. Zertarako nahi duzu beste kopia bat?

PISANI.- Jakina, ez da beharrezkoa. *Komisarioaren ahotsa entzuten da. Ziztu bizian sartzen da. Agentea haren atzetik, aztoraturik.*

KOMISARIOA.- Ikus dezagun, Pisani, zer esan nahi du etorri behar dudala ahal badut eta ezin badut ere bai?

PISANI.- Arrazoi duzu, komisario, baina zera...

KOMISARIOA.- Ze zera eta zeraondo! Noiztik zara zu nire nagusia? Ez ditut batere atsegin zure manera horiek, batik bat, lankideekin dituzunak. Muturrekoak banatzen ere hasi zara eta!

PISANI.- Barkatu, komisario, baina, antza denez, Bertozok ez dizu hitzik aipatu puzkerrez, ezta Calabriako sotoen inguruan egindako bromez ere...

KOMISARIOA.- Baina, zer diozu Calabriako puzkerrez? Ez gaitezen umeak izan. Guri begira daukagu mundu guztia: prentsa zeharkako aipamen gaiztoak egin eta egin ari da, era guztietako zurrumurru higuingarriak zabaldu dira, eta zu... Mesedez, ez nazazu isilarazi, nik barrabletan jartzen zaidanean hitz egiten dut, os... *Pisanik epaile faltsua seinalatzen dio.* Ostia, kazetari bat! Zergatik ez didazu lehenago esan?

EROA.- Ez kezkatu, komisario, nire ahotik ez da-eta hitz erdirik ere aterako, zin dagizut.

KOMISARIOA.- Eskerrik asko...

EROA.- Orain dela gutxi, ni neu saiatu naiz zure kolaboratzaileari errieta egiten, gazte odolbero eta intolerante samarra baita. Sinetsidazu,

komisario, mutil honek psikiatra on bat behar du: sexu-arazoak ditu. Tori, bidaltzazu nire lagun min honengana, jeinu bat da. *Txartela ematen dio.* Antonio Rabbi irakaslea, irakasle ohia... baina erreparaiozu komari.

KOMISARIOA.- Zure baimenarekin, ni... *Pisaniri.* Nor da Leninen fotokopia hau?

PISANI.- Marco Maria Malipiero irakaslea.

KOMISARIOA.- Nor?

PISANI.- Kasazio Auzitegiko lehen kontseilaria.

KOMISARIOA.- Ez! Jauna, ez dakit nola zuritu...

PISANI.- Epaile jauna anarkistaren kasua berrikustera etorri da...

KOMISARIOA.- *Pisaniri.* Eta zergatik ez didazu jakinarazi? *Eroari.* Zure zain geunden, epaile jauna, baina ez zintugun hain bizkor espero.

EROA.- Espero dut enbarazu ez egitea.

KOMISARIOA.- Mesedez! *Pisani birrindu egiten du begiradaz.*

PISANI.- Jakinaren gainean jarri nahi zintudan, baina ez didazu utzi txintik ere esaten.

EROA.- *Pisaniri.* Gazte, ikas ezazu zure nagusiarengandik. Baina, jakina, hura beste eskola batekoa da, ez al da hala?

KOMISARIOA.- Horixe, beste eskola...

EROA.- Eskola aipatu duzula, nik esango nuke zure aurpegia ezaguna egiten zaidala... Ez dugu elkar ezagutzen? Zu ez zara izango kasualitatez kartzela-zuloan egondakoa?

KOMISARIOA.- Zuloan?

EROA.- Bururatzea ere! Komisario bat zuloan. Tira, jo dezagun harira...

KOMISARIOA.- Bai, jo dezagun harira.

EROA.- Ederki, jo dezagun gertakariak aztertzerara. *Paperak gainbegiratzeko ditu.*

AGENTEA.- *Pisaniri.* Hemen geratuko naiz, inspektore? *Pisanik baietz dio.*

EROA.- Gertakariari buruzko lehen bertsioaren arabera, hogeita bost, hogeita sei eta hogeita zazpigarren orrialdeak, ilunabar batean, eguna... Tira, datak ez digu axola. Anarkista bati, tren-konpainiako langilea bera, itaunketa egiten ari zitzaizkion bulego honetan, Geltoki Nagusian jarritako lehergailuei buruz, baita Milango Nekazaritza Bankuan geroztik jarritakoei buruz ere. Atentatu haiek hamasei pertsona errugaberen heriotza eragin zuten. Eta, zuk zeuk esandako hitzen arabera, komisario, "zantzu sendoak zeuden bera erruduntzat jotzeko". Hori deklaratu zenuen, ezta?

KOMISARIOA.- Tira, hori hasieran izan zen, epaile jauna. Geroztik...

EROA.- Horixe, ba, hasieran gaude. Modu ona hasteko, ezta?

KOMISARIOA.- Bai, jakina.

EROA.- Eskerrik asko. Gauerdi aldean, anarkista raptus batek harrapaturik —eta betiere zeuk esandakoaren arabera— raptus batek harrapaturik, bere burua leihotik behera bota eta lurrera erori zen.

(VOLARE)

KOMISARIOA.- Horixe da.

PISANI.- Bai, jauna!

EROA.- Baina ikus dezagun... Zer da raptus bat?

AGENTEA.- Raptus bat...

KOMISARIOA.- ...raptus bat da.

PISANI.- Ba, hori, raptus bat raptus bat da!

AGENTEA.- Bai, raptus bat raptus bat da!

EROA.- Bandieuk dioenez, raptusa neurritz gaineko angustia suizida da, eta gaitz psikikorik gabeko edonor harrapa dezake, baldin eta estutasun bortitza edo ezinegon larria eragiten bazaio. Zuzen?

KOMISARIOA eta PISANI.- Zuzen.

EROA.- Ikus dezagun orain nork edo zerk eragin zion ezinegon hura, larritasun hura. Zehatz-mehatz berrituko ditugu gertakariak, zure sarrera ospetsuarekin hasita, komisario.

KOMISARIOA.- Barkatu, jauna, zer sarrera ospetsuz ari zara?

EROA.- Raptus tragikoa eragin zuenaz.

KOMISARIOA.- Hemen okerren bat dago. Nik ez nuen inolako sarrerarik egin, nire menpekoren bat izango zen, kolaboratzailearen bat.

EROA.- A, a. Ez da zilegi erantzukizuna gainetik kendu eta menpekoen esku uztea. Ez da dotorea.

PISANI.- Baina, epaile jauna, polizia maiz baliatzen da amarru horietaz atxilotuen aitortpena lortzeko.

EROA.- Inork eskatu al dizu iritzirik? Lotsagabe hori.

PISANI.- Ez, inork ez dit ezer eskatu, baina...

EROA.- Ba, hitz egizu eskatzen dizutenean. Komisario, zure sarrera.

KOMISARIOA.- Gauzak honela gertatu ziren, gutxi gorabehera: atxilotua eserita zegoen, hor. *Aulkia seinalatzen du. Eroak aulkia hartu eta bertan esertzen da.*

EROA.- Neuk egingo dut anarkistarena. Aurrera.

KOMISARIOA.- Nire menpekoa...

EROA.- Et, et, et...

KOMISARIOA.- Alegia, ni... sartu egin nintzen.

EROA.- Ederki. Ba, sartu.

KOMISARIOA.- Zer esan duzu?

EROA.- Sartzeko. *Komisarioa irten eta sartu egiten da atzera. Eroarengana doa.*

KOMISARIOA.- Nire subertsibo maitea, nahiko barre egin duzu nire kontura...

EROA.- Ez, ez. Esantzazu dokumentuak dioena, hitzez hitz. *Komisarioak sartu-irtena egiten du berriz ere.*

KOMISARIOA.- Aizu, babalore arraioa, nazka-nazka eginda naukazu oraintxe!

EROA.- Babalore bakarrik?

KOMISARIOA.- Zin dagizut.

EROA.- Oso ondo. Segi.

KOMISARIOA.- Froga ukaezinak ditugu geltokiko bonbak zeuk jarri zenituela esateko.

EROA.- Ez.

KOMISARIOA.- Bai, bai, bai.

EROA.- Edukiko zenituzten, noski.

KOMISARIOA.- Zer?

EROA.- Frogak.

KOMISARIOA.- Ez, horixe.

EROA.- Hori da azal lodia!

KOMISARIOA.- Horixe adierazi nahi zizun lehen inspektoreak. Poliziaren ohiko trikimailua da hori.

EROA.- Oraintxe ulertzen dut! Azpijokoa! Bizkorrak zarete gero!

PISANI.- Hori bera, azpijokoa.

EROA.- Bikaina benetan.

PISANI.- Nolanahi ere, guk bagenituen geure susmoak. Izan ere, atxilotua Milango tren-konpainiako langile anarkista bakarra zenez, logikoa zen bera izan zela suposatzea.

EROA.- Jakina. Begi-bistakoa. Dedukzio horri jarraituz, hain argi baldin badago geltokiko bonbak tren-konpainiako langile batek jarritakoak zirela, horren ondorioz, esan dezakegu Erromako Auzitegikoak epaile batek jarri zituela, eta Soldadu Ezezagunaren monumentukoak, berriz, guardiako kapitainak eta Nekazaritza Bankukoak bankari batek edo behi batek, aukeran.

AGENTEA.- Jakina!

EROA.- *Sutan*. Jaunak, ni ganorazko ikerketa zuzentzera etorri naiz hona, eta ez silogismo txatxuekin jolas egitera. Jarrai dezagun! Honek dioenez, “ez zirudien salaketak anarkistarengan inolako eraginik izan zuenik, eta irribarre egiten zuen sinesgogor”. Nork deklaratu zuen hori? *Komisarioak eta agenteak Pisani seinalatzen dute, eta Pisanik, aldiz, komisarioa.*

EROA.- Bi bakarraren kontra.

PISANI.- Nik, epaile jauna.

EROA.- Beraz, irribarre egiten zuen sinesgogor. Eta gaineratzen du: “Zalantzarik gabe, lanpostua galtzeko beldurrak eragin zion krisialdi suizida hura. Kanean jarriko ote zuten beldur zen”. Nork sartu zion

beldur hura gorputzean? Nork hitz egin zion lanpostua galtzeko arriskuaz? *Inork ez du erantzuten.* Tira, jaunak, munduko polizia guztiek dakite hori egiten. Zuek biok ez zarete iaio baino iaioagoak zuen lanbidean, ala? Eskubide osoa duzue horrela jokatzeko, horixe bakarrik behar genuen.

PISANI eta KOMISARIOA.- Eskerrik asko, epaile jauna.

EROA.- Ez horregatik. Baina badakigu taktika hori arriskutsua gerta daitekeela. Esaten diozu anarkista bati lanetik botako dutela, eta lur jota gelditzen da. Funtsean burges txikiak dira: soldata finkoa, ordainsari bikoitza, oporraldi ordaindua, erretiroa. Inork ez du haiek bezainbat pentsatzen zahartzaroaren lasaitasunean. Beraz, zuek suntsitu egin zenuten moralki, itxaropena galarazi zenioten, eta hark leihotik behera bota zuen bere burua.

KOMISARIOA, PISANI.- Eeeez!

ENTZUTEN DA: “Volare...”

PISANI.- Zure baimenarekin, egia esanda, ez zen hain bizkor gertatu.

KOMISARIOA.- Jakina, zure esku-hartzea falta da.

PISANI.- Ni irten berria nintzen.

KOMISARIOA.- Bai, baina sartu egin zinen berehalakoan.

PISANI.- Hori da.

EROA.- Ba, goazen eszenatokira.

AGENTEA.- Gogoratu hemen hau esan genuela: “Telefonoz deitu dizute, jauna, oso garrantzitsua da”. *Agentea irten egiten da, berriro sartu eta Pisaniri.* Telefonoz deitu dizute, jauna, oso garrantzitsua da.

PISANI.- Barkatu, jaunak. *Irten eta sartu egiten da atzera.* Noiz?

KOMISARIOA.- Oraintxe, oraintxe!

PISANI.- *Irten, etenaldia, entseatu egiten du.* Oso dei garrantzitsua zen Erromatik, oso dei garrantzitsua zen Erromatik. *Misteriotsu sartzen da.* Dei-garraioa zen oso erromatarra.

KOMISARIOA.- Primeran.

EROA.- Jarrai dezagun.

PISANI.- Albiste hau gustatuko zaizu. Zure lagun, alegia, zure burkide dantzariak aitortu egin du, onartu du berak jarri zuela lehergailua Erromako Bankuan.

EROA.- Nola hartu zuen?

PISANI.- Oso gaizki. Zurbildu egin zen, zigarro bat eskatu, piztu zuen...

EROA.- Eta salto egin zuen leihotik behera.

KOMISARIOA.- Ez, oraindik ez. Ez zen hain bizkor gertatu...

EROA.- Gertakarien lehen bertsioan, berehalaxe gertatu zela deklaratu zenuen.

KOMISARIOA.- Bai, egia da.

EROA.- Eta prentsari eta telebistari azaldu zenien anarkista setiatu-rik sentitu zela, harrapatu-rik. Zergatik?

KOMISARIOA.- Koartada pikutara joan zitzaio- lako. Izan ere, kartetan eman omen zuen atentatua gertatu zeneko arratsalde osoa, baina hiru jubilatekin, ez zen sinesgarria.

EROA.- Errematerako, gaineratu zenuen anarkistaren imintzio suizida hura “delituaren onarpen garbia” izan zela.

KOMISARIOA.- Hala da.

EROA.- Baina aste batzuk pasata, irratan deklaratu zenuen aztarna zehatzik ez zegoela tren-konpainiako langilearen aurka. Hala al da?

KOMISARIOA.- Tira, ni...

EROA.- Eta zuk, Pisani inspektorea, adierazpen hau egin zenuen telebistan: “Anarkista mutiko jatorra zen”.

PISANI.- Hara, gauzek ihes egin ziguten eskuetatik.

KOMISARIOA.- Onartzen dut. Hutsegite taktikoa izan zen.

EROA.- Hutsegitea? Lehenik eta behin, hiritar libre bat atxilotu zenuten arrazoirik gabe; ondoren abusatu egin zenuten legeak baimentzen duenaz gainetik kartzelan atxikiz; traumatizatu egin zenuten esanez badituzuela frogak dinamitari hiltzailea bera izan zela erakusteko; lanpostua galduko zuelako psikosia eragin zenioten; adierazi zenuten defendaezina zela kartetan aritu zen koartada hura; eta, amaitzeko, heriotza-ukaldia: haren adiskide eta burkide erromatarrak aitortua omen zuen bera izan zela triskantzaren erruduna. Portzieto, hark egin al zuen?

KOMISARIOA.- Nork?

EROA.- Dantzariak?

KOMISARIOA.- Zer?

EROA.- Aitortu ote zuen berak jarri zuela Erromako bonba?

KOMISARIOA.- Ez.

EROA.- Ez?

PISANI.- Asmatu egin genuen.

EROA.- Hori bai irudimena! Baina, zuek burutik eginda zaudete, ala? Egoera horretan, nola harritu gaitezke halako jazarpena sufritu duen gizona raptus subitus batek harrapatu izanaz? Hara, egia esango dizuet: zuek biok errudun zarete, oraintxe bertan salatu dezaket zeuok bultzatu zenutela anarkista suizidiora.

KOMISARIOA.- Baina, epaile jauna, zerorrek esan duzu gure zeregina susmagarriei galdeketa egitea dela eta hitz eginaraztea, horretarako larderiazko (mehatxuzko) taktikak erabili behar baldin badira ere.

EROA.- Bai, baina kasu honetan etenik gabeko bortxakeria psikikoa gertatu da, gezur bortitz eta kontraesankorren erakustaldi publikoaz gainera (publikoarekin batera).

PISANI.- Dena den, gu ez geunden bulegoan suizidak bere burua bota zuenean. Galdeiozu agenteari.

AGENTEA.- Bai, epaile jauna. Bulegotik irten berriak ziren, koitaduak leiho aldera jo zuenean.

EROA.- Eta horrek zer frogatzen du? Gauza berbera litzateke esatea norbaitek bonba bat jatetxe batean utzi eta joan egiten bada ez dela erruduna ez zegoelako egintzen gertalekuan leherketaren unean.

PISANI.- Hemen okerren bat dago. Agentea bigarren bertsioaz ari da.

EROA.- Nola?

PISANI.- Bigarren bertsioa.

AGENTEA.- Ikus dezagun, zer bigarren bertsio nahi duzue?

KOMISARIOA.- Bigarrena!

AGENTEA.- Ez, hori bigarren lehen bertsioa da.

PISANI.- Ni lehen bigarren bertsioaz ari naiz.

AGENTEA.- A, jakina.

EROA.- Hortaz, atzera-egite bat egon zen...

KOMISARIOA.- Esan dezagun zuzenketa soila egin zela.

EROA.- A, bai?

KOMISARIOA.- Galdeketa-ordua zuzendu genuen, zerak erabili genituenean, zera... Nola esango nizuke?

EROA.- Gezurrak?

KOMISARIOA.- Estrategia. Saioa iluntzeko zortzietan amaitu genuen, eta ez hamabietan, lehen aldian deklaratu genuenez.

EROA.- Orduan, lau ordu aurreratu duzue dena. Udako ordutegia hobetu nahian edo...

PISANI.- Dena, leihotik behera erori zeneko ordua izan ezik. Hori ordu berean gertatzen da, gauerdian, lekukoak zeuden.

KOMISARIOA.- Frogatu nahi genuen gure gezur eta baieztapen faltsuek ez zutela raptusa eragin. Izan ere, lau ordu luze iragan ziren galdeketatik suizidiora, eta denbora horretan anarkistak astia izan zuen indarberritzeko.

AGENTEA.- Neure txanda da orain. Anarkista hasierako depresioaren ondoren, suspertzen ari zen, bere onera etortzen.

PISANI.- Irribarrez ari zen eta. Gogora ezazu zer deklaratu nuen azken... alegia, bertsio honen amaieran.

KOMISARIOA.- Hori gertakarien bigarren bertsioari dagokio.

EROA.- Hortaz, anarkista lasai zegoen.

PISANI.- Horixe, lasai-lasai.

EROA.- Orduan, zergatik bota zuen bere burua? E? *Gainerakoak zur eta lur geratzen dira.* Eta non jarriko dugu orain ditxosozko raptusa? Kontrakorik frogatzen ez den bitartean, suizidioaren bertsioak raptusaren teoria du oinarri. Mundu guztia, hasi fiskalarekin eta epailearekin amaituta, esan eta esan (esandaesan) ari da gizagaixoak "raptus subitus" baten eraginez bota zuela bere burua leihotik behera.

KOMISARIOA.- Zer egin dezakegu?

PISANI.- Gureak egin du.

KOMISARIOA.- Emaiguzu aholkuren bat.

EROA.- Zer dela eta uste duzue bidali nautela hona? Gobernuak zerbait egin behar du, poliziak kasu honekin galdu duen sinesgarritasuna berreskuratzeko.

PISANI.- Zer?

EROA.- Justizia eta Barne Ministerioek erabaki dute, baldin eta zuek mirari batez katramila hau konpontzeko gai ez bazarete behintzat, baliagarriak izango zaretela eskarmentu on bat emateko.

PISANI.- Basapiztientzako jana izango gara!

KOMISARIOA.- Aberriagatik sakrifikatu dut neure bizitza.

PISANI.- Hauxe da mundu kakatsua!

EROA.- Ez, gobernu kakatsua. Hau guztia politikarien kontua da.

PISANI.- Baina guk agindu zehatzak bete genituen...

EROA.- Jakina. Premiazkoa zen borroka sindikala geldiaraztea, "Heriotza subertsiboarentzat" leloa giroan zabaltzea, eta horrek justifikatu egingo zuen indar errepresibo gehiago sortzea. Hori esan zizueten, ez da hala?

PISANI.- Hain egokia zirudien...

KOMISARIOA.- Iraultza internazionalak gizartearen oinarriak ahultzen ditu...

EROA.- Sendotu egin behar da Estatua!

KOMISARIOA.- Erasoari ekin behar diogu!

PISANI.- Zertan huts egin dugu?

EROA.- Gauzak aldatu egin dira, oso urrutira joan zarete. Jendea sutan jarri du anarkistaren heriotza zikin honek. Pare bat bururen atzetik dabilta, eta, ziur izan Estatuak eman egingo dizkiela.

KOMISARIOA.- Gure buruak?

EROA.- *Leioa erakutsiz.* Behera!

PISANI.- Zer?

EROA.- Behera biok! Ez al zenuten aholkua nahi?

KOMISARIOA.- Ez!

EROA.- Bi karrera porrot eginik, mundu guztiaren barregarri izango zarete. Prentsa ere gainera oldartuko zaizue putreen antzera.

KOMISARIOA.- Jakintzazu zer esango duten gutaz kakanarru horiek.

PISANI.- Ogibide madarikatua!

EROA.- Bakarrik utzi zaituztete. Zuenak egin du.

PISANI.- Izugarria da. Hasiera-hasieratik esan behar zenigun hori.

EROA.- Zuen gezur burugabeek kondenatu zaituztete.

KOMISARIOA.- *Pisaniri.* Ez al nizun nik esan? “Utzitzazu melodramak telebistako gidoilariantzat”. Baina ez, zu hor, hitz eta pitz, kaskotik pasatzen zitzaizkizun lerdokeria guztiak esan behar.

EROA.- Pisani, nola jasan ditzakezu irain horiek guztiak? Zure adiskideek, zure lankideek, mundu guztiak iseka egiten dizu muturraren aurrean.

PISANI.- Egia da! Bertozzo hasita dago, jada. *Belaunikatu egiten da.*

EROA.- Zer egin behar duzue mundu nazkagarri honetan? Hau al da bizimodua? Bai mundu kakatsua! Bai gobernu kakatsua! Segi behera biok!

KOMISARIOA.- Ez daukat gogorik! Ez da bidezkoa!

EROA.- Bidezkoa?

KOMISARIOA.- Ez, ez da bidezkoa. Nik ez dut neure burua botako.

EROA.- Neuk esango dut hemen zer den bidezkoa! Zuentzat amaitu da dena, ez dago itxaropenik. Horixe da egin dezakezuen itxurazko gauza bakarra.

PISANI.- Arrazoi du. *Leihoaren marko gainera igotzen da.* Ezin dut halako ezbeharra jasan. Ama, barka nazazu.

KOMISARIOA.- Ez, ez. Egongo da beste irtenbideren bat!

EROA.- *Pisaniri.* Sentitzen duzu nola harrapatzen zaituen raptusak?

PISANI.- O, o, bai, bai! *Bere burua botatzeko zorian.*

EROA.- Gora raptus askatzailea!

KOMISARIOA.- Badakit! Badakit zer egin dezakegun! Zaude lasai!

PISANI.- Ezin dut! Agur! *Bere burua botatzen du. Komisarioak airean harrapatzen du.*

KOMISARIOA.- Hirugarren bertsioa!

PISANI.- Zer?

KOMISARIOA.- Hirugarren bertsio bat aurkitu behar dugu.

PISANI.- Ez gara gai izango. Ez al duzu jadanik nahikoa lelokeria esan? Utzidazu!

KOMISARIOA.- Zure laguntza behar dugu, epaile jauna. Zure jakinduriarekin eta buru-argitasunarekin gai izango gara premiazkoak ditugun frogak eta argibideak aurkitzeko.

PISANI.- Ezin izango dugu, ezin izango dugu...

KOMISARIOA.- Zaude isilik!

EROA.- Oso ondo, baina hauxe duzue azken aukera. Jaitsi zaitez hortik, inspektore.

PISANI.- Ezin dut.

EROA.- Hoztu egingo zara hor kanpoan.

AGENTEA.- Salto egingo duzu, ala hemen geratuko zara, jauna?

PISANI.- Uste dut geratu egingo naizela.

AGENTEA.- Geratu egingo da. *Agenteak lagundu egiten dio barrura sartzen.*

EROA.- Goazen horra. Bota dezagun dena!

PISANI.- *Izaturik*. Ez!

EROA.- Bota ditzagun adierazpen guztiak, eta has gaitezen berriro.

KOMISARIOA.- Lehen puntua: Esana esana dago, eta ez dugu orain atzera egingo. Garbi gera bedi, beraz, zuk, inspektore, eta nik, edo beste norbaitek nire izenean, antolatu genuela baieztapen faltsuen nahaste--borrastea. Anarkistak bere azken zigarroa erre zuela, baina ez zuela saltorik egin, artean gauerdia ez zelako, zortziak baino ez ziren, eta badakigu tren-konpainiako langile batek errespetatu egiten duela beti ordutegia. Horrek nahiko astia ematen digu aldartea aldarazi, suizidio--saioa atzeratu eta bere buruaz beste egin dezan erabateko arrazoi biribila emateko.

EROA.- Badakit! Deklaratu dezakezue anarkista jo zuen depresio--egoerak hunkitu egin zintuztela.

KOMISARIOA.- Hunkitu gintuen?

EROA.- Agente?

AGENTEA.- Esan, epaile jauna.

EROA.- Hunkiturik zeundeten?

AGENTEA.- Hunkiturik? Bai, ni hunkiturik nengoen, denok geunden hunkiturik.

EROA.- Ikusten?

PISANI.- Ni ez nengoen hunkiturik. Ni ez nengoen hemen.

KOMISARIOA.- Zu hemen zeunden!

PISANI.- A, bai? Tira, bai. Irribarre egiten zuen lasai. Eta ni zer dela eta nengoen hunkiturik?

KOMISARIOA.- Esate baterako... irribarrez hasi zen denak hunkiturik zeundetela ikusi zuenean.

EROA.- Ez dago gaizki.

KOMISARIOA.- Nola gaizki? Oso ondo dago!

AGENTEA.- Bai, nahikoa.

EROA.- Baina ez da aski.

AGENTEA.- Nik txikle bat eman nion.

EROA.- Mendazkoa ala marrubizkoa?

AGENTEA.- Tuti-frutizkoa.

EROA.- Zoragarria! Mastekatzen hasi zen.

KOMISARIOA.- Eta orain egin dezake irribarre.

EROA.- Izugarri atsegin zuen tuti-frutia.

KOMISARIOA.- Eta ni joan egin nintzen burua mugituz. *Egin egiten du.*

EROA.- Ez! Zeu ere hemen geratu zinen!

KOMISARIOA.- Geratu al nintzen?

PISANI.- Bai!

EROA.- Ederki, komisario. Zuretzat mingarria zen mutil harekin hain zakar portatu behar izatea. Zu gizon sentibera zara.

KOMISARIOA.- Bai, sakonean, pena ematen zidan, mingarria zitzaidan.

EROA.- Jakina. Ezin gogoari eutsi eta eskua jarri zenion sorbalda gainean.

KOMISARIOA.- Horretaz ez naiz gogoratzen.

AGENTEA.- Bai, hala egin zuen, neuk ikusi nuen.

KOMISARIOA.- Tira, berak ikusi bazuen...

EROA.- *Pisaniri*. Eta zuk masaileko bat eman zenion, horrela.

PISANI.- Ziur naiz ez nuela halakorik egin.

EROA.- *Temati*. Horrelakoa, txiki-txiki bat.

PISANI.- Sentitzen dut dezepzionatzea, baina...

EROA.- Bai horixe, dezepzio handia hartu dut! Eta badakizu zergatik?

PISANI.- Ez.

EROA.- Ba, gizon hura, anarkista ez ezik, tren-konpainiako langilea ere bazelako. Horrek zer esan nahi du zuretzat?

PISANI.- Ez dakit.

EROA.- Pentsazazu pittin bat. Zuk, txikitan, ez zenuen inoiz jostailuzko trenik eduki?

PISANI.- Bai.

EROA.- Lurrinezko trena?

PISANI.- Bai, lurrinezko trena, kea ere botatzen zuen.

EROA.- Eta “tu-tu” egiten al zuen?

PISANI.- Bai, tu-tu.

KOMISARIOA.- Bai, neuk ere izan nuen bat.

EROA.- A, bai? Eta zer egiten zuen?

KOMISARIOA.- Txuku-txuku-txuku-txuku...

EROA.- Zoragarria! Begiak piztu zaizkizue. Zuek arrazoi bakarra zenuten gizon hura, tren-konpainiako langile hura, estimatzeko: subkontzientean haurtzaroko tren txiki haiekin lotzen zenuten. Eta ziur naiz masaileko txiki bat eman zeniola. *Agenteari begira.*

AGENTEA.- Bai, hala egin zuen, nik ikusi nuen, bi masaileko eman zizkion, bi, txiki-txikiak.

EROA.- Ikusten? Lekukoak ditut. Eta zer esan zenion?

PISANI.- Ez dut gogoratzen.

EROA.- Hau esan zenion: Tira, ez zaitetz horrela jarri, eta bere izenaz deitu zenion. Nola zen? Giacomo, ezta? Ikusiko duzu, Giacomo, anarkia ez da hilko.

PISANI.- Ziur naiz ez nuela esan...

EROA.- Ezidazu pazientzia galarazi!

PISANI.- Ez, jauna.

KOMISARIOA.- Egidazu mesedea, esantzazu hitzez hitz: "Tira, Giacomo, ez zaitez horrela jarri".

PISANI.- Tira, Giacomo, ez zaitez horrela jarri.

KOMISARIOA.- "Ikusiko duzu, anarkia ez da hilko."

PISANI.- Ikusiko duzu, anarkia ez da hilko.

EROA.- Eta orduan kantuan hasi zineten.

AGENTEA.- Kantuan?

PISANI.- Zer?

EROA.- Zuek guztiok kantatzen hasi zineten.

KOMISARIOA.- Kantatzen, harekin batera?

EROA.- Horixe; bestela, ez dauka zentzurik. Une hartara iritsita, hain giro gozoa sortu zen, hain lagunartekoa, hain adiskidetasunezkoa, ezin besterik egin eta kantari hasi zineten denok, lau ahotsean, harmonia ederrean.

KOMISARIOA.- Barkatu, epaile jauna, baina kantatzeko horretan ezin dugu aurrera egin.

EROA.- Ez al duzue aurrera egingo? Zeuok ikusi, hortxe duzue leihoa. Nik eskuak garbituko ditut. Dauden-daudenean utziko ditut gertakariak, eta badakizue zer aterako den hortik? Barkatu, baina putetxe bat. Aurrena, istorio bat asmatu zenuten; gero, beste bat desberdina. Zuek biok ere ez zarete ados jartzen, ezintasunaren eredu zarete. Nork sinets dezake esaten duzuen? Inortxok ere ez. Eta zergatik? Neuk esango dizuet. Gertakariei buruzko zuen bertsioak, nahasia izateaz gainera, ez duelako gizatasun-izpirik ere, gozotasun-arrastorik ez. Emozio-unerik ez, txantxarik bat ere ez. Hemen ez du inork sentimendurik agertzen. Ez da sinesgarria. Kanta ezazue, hori da nire aholkua. Erakuts itzazue bi bihotz, gezur eta iruzur guztien gainetik, emozioz beterik egoteko ahalmena dutenak. Bestela, alferrik arituko zarete, inork ez dizue sinetsiko. Kanta ezazue! Kanta ezazue eta ahaztu ditzagun hutsegiteak oro. Hiru giza arima oinazeturik, polizienak badira ere, ereserki subertsiboa abesten hasten dira atxilotuarekin batera, lagundu nahi diotelako makalaldia gainditzen. Anarkisten ereserkia: “Gure aberria mundu osoa da”. Zuen onerako, kanta ezazue.

BIGARREN ZATIA

Argiak piztu aurretik, abesteari ekiten diote laurok. Akorde altua eginez amaitzen dute, argia piztearekin batera.

EROA.- Sekulakoa!

AGENTEA.- Kaferik nahi, jaunak?

EROA.- *Txaloak, besarkadak, bostekoak.* Ondo. Oso ondo! Zoragarria! Gauzak horrela, inork ez du zalantzan jarriko gure anarkista sasoi betean zegoela.

PISANI.- Are gehiago, nik pozik zegoela esango nuke.

KOMISARIOA.- Etxean bezalaxe sentitzen zen.

AGENTEA.- Lasai baino lasaiago zegoen.

KOMISARIOA.- Horixe, lasai-lasai.

PISANI.- Bai, horixe.

KOMISARIOA.- Gure azpikeria korapilatsuek ez zuten eraginik izan harengan.

EROA.- Eta raptusa?

KOMISARIOA.- Une hartan, arazo psikikorik ez, batere.

PISANI.- Raptusa beranduago.

AGENTEA.- Gauerdi aldean.

EROA.- Ederki. Ba, gauerdia da jadanik. Agente...

AGENTEA.- Bai, epaile jauna?

EROA.- Zeuk zuzendu eszena.

AGENTEA.- Gauerdia. *Eroak hontza imitatzen du.* Bulego honetan bost lagun geunden: atxilotua eta biok, beste agente bat eta...

KOMISARIOA.- Ni irten berria nintzen.

EROA.- Ixo!

AGENTEA.- Eta baita ere...

EROA.- Hauek biok?

AGENTEA.- Bai. *Birrinde egiten dute biek begiradaz.*

EROA.- Zertan ari ziren?

AGENTEA.- Galdeketa egiten ari zitzazkion.

EROA.- Hainbeste orduren ondoren? Nahasita egongo ziren, noski, urduri, asaldaturik...

PISANI.- Ezta pentsatu ere, epaile jauna, patxada ederrean geunden.

EROA.- Ez al zenioten mehatxurik egin? Ez zenioten kolperen bat jo?

PISANI.- Mesedez!

KOMISARIOA.- Kolperik ez, ohiko baliabideak.

EROA.- Baina, belarrondokoren bat?

PISANI.- Ezetz, ba!

EROA.- Masaje txiki bat, tentsioa arintzeko? *Masajea ematen dio agenteari.* Horrela...

AGENTEA.- Pittin bat ezker alderago.

EROA.- Ezkerretara, horrela?

AGENTEA.- A! Oso ondo.

PISANI.- Ez, jauna, ez masajerik, ez kolperik, ez antzekorik. Dena aginduen arabera. Galderak egiten genizkion, txantxetan.

EROA.- Txantxetan?

PISANI.- Zin dagizut, txantxetan aritu ginen.

KOMISARIOA.- Galdeketa egitean, hari barrea eragiten saiatu ginen.

EROA.- Mozorrorik erabili zenuten? Imintziorik egin zenioten, edo txisterik kontatu?

AGENTEA.- Bai, barrez ito beharrea jardun genuen. Ez du ematen, baina nahi duenean, inspektorea oso xelebrea da. Ikusiko bazenu ze itaunketa barregarriak egiten dituen aldarte oneko dagoenean. Ja, ja, ja.

EROA.- Batik bat, anarkistekin ari denean...

AGENTEA.- Bai, batik bat. Ja, ja, ja! Tira, ni...

EROA.- Orain ulertzen dut zergatik erabaki duzuen eslogana aldatzea.

KOMISARIOA.- Poliziaren eslogana?

EROA.- Bai, hala erabaki dute Ministerioan.

KOMISARIOA.- Eslogana aldatu behar digute?

EROA.- Aldatu baino osatu egingo dute. Zein da oraingoa?

PISANI.- “Polizia hiritarraren zerbitzura”

EROA.- Ba, hemendik aurrera hau izango da: “Polizia hiritarraren zerbitzura barrea eragiteko”. Tira, inspektore, ez izan umila, kontaiguzu txisteren bat.

AGENTEA.- Bai, txiste bat, jauna. *Pisanik txiste bat kontatzen dio publikoari. Behiena.*

EROA.- Ez zenion deskuiduan anarkistari txiste hori kontatuko?

PISANI.- Bai, epaile jauna.

EROA.- Ez da harritzekoa bere burua bota izana. Benetan, inspektore. Erabat sinetsita nago txantxetako tratua ematen diezuela atxilotuei. Lehendik ere banekien hori. Behin, Bergamon, banda hari egin zitzaizkionean itaunketak... Nola zen? “Asteleheneko Banda.” Gogoan duzue? Ia herri oso bat akusaturik. Errugabe suertatu ziren gero. Ni polizia-etxetik gertu bizi nintzen, eta gauetan garrasiek esnatzen ninduten. Hasieran, tratu txarrak zirelakoan nengoen, baina, gero, jabetu nintzen barre-algarak zirela. “Ja, ja, ja, mesedez, aski da”, “Ja, ja, ja, ezin dut gehiago”, “Jo, jo, jo, hiltzen ari naiz”.

PISANI.- Adarra jo nahi diguzu?

EROA.- Ez, ez naiz txantxetan ari. Zuek ez zarete oraindik ohartu zer-nolako gezurrak asmatzen dituen errugabe askok atxilotuak izatearren. Zuentzat anarkistak dira, sindikalistak, parlamentuz kanpokoak; baina, egia esateko, depresibo errukarriak dira, hipokondriakoak, iraultzailez mozorrotzen diren malenkoniatsuak. Edozer egiteko prest daude horiek, barrez lehertzerainoko itaunketa egin diezaieten. Une honetan gure anarkista hilobian egongo da barrez ito beharrean.

PISANI.- Ez dizut ulertzen, epaile jauna. Lagundu nahi diguzula esan eta iseka egiten diguzu etengabe. Kantarazi egin diguzu, behartu gaituzu samurrak eta bihozberak garela frogatzera...

EROA.- Amaitu dira txantxak, zin dagizuet. Hemendik aurrera, serio-serio jardungo dugu. Baina, aizue, zeren kontura barre egin zenuten gau hartan?

PISANI.- Batez ere, dantzari anarkistaren kontura.

EROA.- Herrena zelako?

PISANI.- Bai, horrexegatik.

EROA.- Komentatuko zenuten, noski, fabrika batean beirazko lepokoak egitez ateratzen zuela bizimodua. Agian, batek daki, aipatuko zenuten pixka bat... tralari-tralara ere bazela.

AGENTEA.- Ja, ja, ja, anarkista tralari-tralara!

KOMISARIOA.- Isilik!

EROA.- Orduan, zuek broma gaiztoak egin zenituzten, haren adiskide tralari-tralara zela eta; eta gure tren-konpainiako langilea mindu egin zen. Ez al da hala?

PISANI.- Bai, litekeena da.

EROA.- Altxatu egin zen bat-batean, eta hau esan zuen: “Ez dut onartuko halako irainik”. Leihora igo eta salto egin zuen.

KOMISARIOA.- Huskeria horrengatik? Hori da sentibera izatea!

EROA.- Oso puntu delikatua ukitu zenioten: gizontasuna. Anarkistek duintasun handia erakusten dute horretan. Ez al duzue irakurri “Sexua eta anarkia” Otto Weiningerrena?

AGENTEA.- “Sexua” eta zer?

EROA.- Anarkia. Ez? Klasiko bat da!

KOMISARIOA.- Zure baimenarekin, epaile jauna, espero dut ez mintzea esaten badizut zure bertsioak ez nauela erabat gogobetetzen.

PISANI.- Neuk ere erreparo handiak ditut.

EROA.- Arrazoi guztia duzue. Neu ere ez nau erabat betetzen. Zuen bertsioa salbatzeko modu baten bila ari nintzen, ez da besterik.

KOMISARIOA.- Axola dizu leihoa ixteak?

EROA.- Egia da, freskatzen ari du. Zeuk ikusi.

PISANI.- Eguzkia sartu egin da eta. *Agenteak leihoa ixten du.*

EROA.- Jakina. Hortaz, gau hartan, eguzkia ez zen sartu.

PISANI.- Zer diozu?

EROA.- Esaten ari nintzen, anarkistak bere burua bota zuen gauean, eguzkia zeru-goian geratu zela, ez zela ilunabarrik egon.

KOMISARIOA.- Ez dizut ulertzen.

EROA.- Ba, abendua baldin bazen eta gauerdian leihoa zabalik baldin bazenuten, hotzik ez zegoen seinale, eta ez zuen hotzik egiten eguzkia artean sartu gabe zegoelako. Beranduago sartuko zen, goizaldeko ordu batean edo, alegia, Norvegian abuztu betean bezala.

KOMISARIOA.- Ez, orduantxe zabaldu genuen leihoa, bulegoko airea pittin bat berritzeko.

PISANI.- Bai, kez beteta zegoen.

AGENTEA.- Anarkistak tximinien antzera erretzen zuen.

EROA.- Leihoa zabal-zabalik utzi zenuten? Abenduan? Gauerdian, termometroa zero azpitik eta lainoa zirrikitu guztietatik sartzen dela? Aire! Pikutara pneumoniak! Berokia, behintzat, jantzita izango zenuten, noski.

PISANI.- Ez, jaka baino ez. Baina ez zuen batere hotzik egiten.

KOMISARIOA.- Ez, giro aparta zegoen.

EROA.- Ba, zerbitzu meteorologikoaren arabera, gau hartan poloetako hartza dar-dar batean jartzeko moduko tenperatura zegoen, eta zuek, hemen: Gora udaberria!

PISANI.- Barkatu berriz ere, baina ez dut ikusten nola lagundu nahi diguzun...

EROA.- Ados, baliteke gehiegikeria izatea... Utz ditzagun, beraz, aurrekariak eta hel diezaiozun egintza sinple eta xume honi: leihotik beherako saltoa.

PISANI.- Ados.

EROA.- Saiatuko gara gero argudio sinesgarriren bat asmatzen saltoarena argitzeko. Gai baldin bazarete... Tira, ba, orduan, gure anarkista, bat-batean altxatu, abiada hartu eta... Egon pixka bat! Nork lagundu zion?

KOMISARIOA.- Zer esan nahi duzu?

EROA.- Baten bat jarriko zen leiho aldamenean, bi eskuetako hatzak sabel parean elkarturik. Oinarekin indarra hartzen laguntzeko, eta zapa!

PISANI.- Baina, epaile jauna, nola pentsa dezakezu gutako batek...

EROA.- Edo, beharbada, tranpolin bat zenuten hemen?

PISANI.- Ez!

EROA.- Takoi elastikoak zapatetan edo...

KOMISARIOA.- Nahikoa duzu, ezta!

EROA.- Beraz, batetik, badaukagu metro eta hirurogeita hamarreko gizona, bakar-bakarrik, laguntzarik gabe, eskailerarik ez, tranpolinik ez... Eta, bestetik, dozena erdi bat polizia, metro gutxira egonik ere, esku hartzeko garaiz iritsi ez zirenak. Bulego hau txikia da, zuetako norbaitek leihotik gertu behar zuen inondik ere.

PISANI.- Hain ustekabean gertatu zen...

AGENTEA.- Ez dakizu zuk ondo zeinen arina zen. Ozta-ozta lortu nuen oin batetik heltzea.

EROA.- Aja! Ikustazue nola funtzionatzen duen probokazioaren teknikak. Agenteak oin batetik heldu zion.

AGENTEA.- Bai, baina haren zapata eskuan geratu zitzaidan, eta berak beherantz jarraitu zuen.

EROA.- Zapata eskuan geratu izana da garrantzitsua, salbatu nahi zenuelako froga eztabaidaezina. Oso ondo, agente.

PISANI.- Agenteak lan bikaina egin zuen.

KOMISARIOA.- Oso ongi, agente.

AGENTEA.- Eskerrik asko, komisario. Eskerrik asko, inspek...

KOMISARIOA.- Orain, isildu zaitez.

EROA.- Barkaidazue. Suizida hiruhankaduna al zen?

KOMISARIOA.- Nola diozu?

EROA.- Hiruhankaduna baldin bazen, hiru zapata izango zituen. Ikus dezagun... agenteak "Corriere della Sera" egunkariari deklaratu zionaren arabera, zapata eskuan zuela geratu zen, eta bestalde, hemen, hamaseigarren orrialdean, lekukoek adierazi zuten anarkistak jantzita zituela oinetakoak lurrean zegoenean. Inork ez zuen aipatu hildakoak hirugarren hankarik bazuenik oinutsik, eta hori atentzioa emateko modukoa izaten da.

KOMISARIOA.- Hori da arazoa!

EROA.- Ba, bai, arazo larria da.

PISANI.- Ez dut ulertzen nola gerta zitekeen halakorik...

EROA.- Baldin eta agentea, bizkor-bizkor, eskaileretan behera oldartu, bigarren pisuko eskailburura iristea lortu, leihoa zabaldu, suizida erortzen ari zela bere paretik pasatu baino lehen burua leihotik atera, zapata airean jantzi eta ziztu bizian berriro igo ez bazen, behintzat.

PISANI.- Baina, zer diozu?

EROA.- Ba, zeuk emango didazu argibide sinesgarriagoa.

PISANI.- *Esfortzua eginez.* Ederki. Seguruenik, zapatetako bat oso handia zuen, eta, batere plantilarik ez zuenez eskura, zapata txikiago bat jantzi zuen handiaren barruan. Eta handia geratu zitzaion eskuan agenteari. *Harro-harro begiratzen dio Eroari. Eroa eseri egiten da.*

KOMISARIOA.- Bi zapata oin berean?

PISANI.- Horixe.

AGENTEA.- Ez dago gaizki.

KOMISARIOA.- Autopsiak ez dio anarkistak oin bat bestea baino txikiagoa zuenik.

AGENTEA.- Hori ez da auzia. Izan ere, eskuan geratu zitzaidana ez zen zapata izan, eskalapoia baizik. Gogoan dituzue antzinako oinetako haiek? Gomazkoak ziren eta, euria ari zuenean, zapata arrunten gainean janzten ziren.

KOMISARIOA.- Inork ez du eskalapoirik erabiltzen gaur egun.

PISANI.- Eta, gainera, ez zuen euria ari.

AGENTEA.- Baliteke anarkistak euri-zaparrada botako zuela uste izatea.

KOMISARIOA.- Horrek ez dauka zentzurik! Anarkista bat eskalapoiak jantzita! Hori jende antigoalekoaren gauza da, kontserbadoreena...

AGENTEA.- Ni lagundu nahian ari nintzen.

PISANI.- Anarkistak oso eszentrikoak dira. Baliteke... eskalapoiak erabiltzea.

KOMISARIOA.- Eta non daude? Non sartu dira eskalapoi malapartatu horiek? Inbentarioan ez daude, hildakoak ez zeuzkan, eta agenteak eskuan zuen zapata horixe baino ez zen, zapata. *Artxibategian bilatzen du.* Zapata hau! *Pisaniri.* Zeuk hemen ezkutatu zenuena lehen deklarazioaren ondoren.

PISANI eta AGENTEA.- Ixo!

KOMISARIOA.- Ez daukat gogorik isiltzeko! Berrogeikoa! Zapata bat! Eskalapoirik ez! Zapata! Zapata!

PISANI.- Nik zure agindua bete nuen.

KOMISARIOA.- Nirea? Nirea? Zu baldarra baino baldarragoa zara!

PISANI.- Eta zu ahoberoa!

AGENTEA.- Jaunak, mesedez...

KOMISARIOA.- Ahoberoa? Nola liteke halako ausardia?

AGENTEA.- Mesedez...

PISANI.- Eta norena izan zen ideia?

KOMISARIOA.- Ze ideia? Inspektore, larrutik ordainduko duzu...
Telefonoak jotzen du. Eroa, eserita, irribarrez. Denak isilik.

EROA.- Hobe duzue erantzutea.

KOMISARIOA.- Baina zuk...

EROA.- Nik ez dut ezer entzun, komisario.

PISANI.- *Telefonoa hartzen du.* Bai, esan? Itxaronapur bat...
Komisarioari. Harrera-lekutik: kazetari bat zutaz galdezka omen dabil.

KOMISARIOA.- Ene Jainkoa, hitzordua eman nion gaurko. Espresso-koa da edo L'Europeo-koa. Nola zuen izena? A, bai, Maria Feletti.

PISANI.- Esan diezaiotela ez zaudela hemen. Ados?

KOMISARIOA.- Ez, ikusi egin behar dut, ez dago beste irtenbiderik. Goikoek agindua eman didate elkarrizketa onartu eta konbentzitzen saiatzeko.

PISANI.- Irakurriak ditut haren artikulak: mihi gaiztoa du.

EROA.- Ba, nik kasu egingo nioke. Hobe duzue halako jendea kontra ez edukitzea.

KOMISARIOA.- Bai, baina, eta zure ikerketa?

EROA.- Ez kezkatu, itxaron egingo dut.

KOMISARIOA.- Nire bulegoan itxaroten badiguzu, saiatuko naiz lehenbailehen libratzen kazetariaz.

EROA.- Ezta pentsatu ere. Nik ez ditut inoiz abandonatzen burkideak.

PISANI.- Baina... urdanga horrek igartzen badu zu nor zaren, gureak egin du.

KOMISARIOA.- Baina epaile jaunaren zorroztasuna oso onuragarria gerta dakiguke sugedorri horrek galdera arriskutsuak egiten badizkigu.

PISANI.- Horixe da, ba, kontua, arriskuan ez jartzea.

KOMISARIOA.- Agente, jar itzazu gauzak beren lekuan!

AGENTEA.- Zure aginduetara, komisario!

EROA.- Ni bigarren maila batean geratuko naiz. Arazorik izanez gero, egidazue begi-keinu bat.

KOMISARIOA.- Epaile jauna, hori da eskuzabal...

PISANI.- Epaile jauna deitzea bururatzen bazaizu, jai daukagu!

AGENTEA.- Epaile jauna beste nortasun batekin aurkeztu dezakegu.

PISANI.- Nola?

KOMISARIOA.- Ideia ona.

EROA.- Bai. Brigada kriminaleko psikiatra izan ninteke.

AGENTEA.- Primeran.

KOMISARIOA.- Ez, badakit zer egingo dugun. Marcantonio Bauzi Piccini kapitaina izango zara. Adiskidea dut, poliziaren laborategiko langilea da Erroman.

AGENTEA.- Askoz hobeto.

KOMISARIOA.- Azpisuge horrek zerbait desatsegina idazten badu, benetako Picciniri deituko diogu deklaratzera, eta horrela frogatuko dugu kazetariak gezurra esan duela.

PISANI.- Poliziaren laborategiko langilearena egin zenezake?

EROA.- Ez dago arazorik, baina arropa aldatu beharko nuke.

KOMISARIOA.- Zailago izango duzu hori.

EROA.- Ez kezkatu, kasualitatez, ekarri ditut gauzatxo batzuk.

KOMISARIOA.- Hunkiturik nago. Ederra da, gero, ikustea botere judizialak poliziaren adiskiderik onena izaten jarraitzen duela. *Eroa irten egiten da.*

PISANI.- *Telefonoz. Igo dadila. Agenteari. Itxaron iezaiozu kanpoan, eta deitu sartu aurretik.*

KOMISARIOA.- Gizon hori jeinu handia da.

PISANI.- Ni ez nago hain seguru. *Deitu egiten dute. Sartu. Agentea eta kazetaria sartzan dira.* Feletti andereñoa. Aurrera, plazer handia da...

KOMISARIOA.- *Aurrea hartzen dio. Zu ezagutzea. Komisarioa naiz. Zoritxarrez, ez dugu aukerarik izan telefonoz baizik hitz egiteko. Zure baimenarekin, nire menpekoea aurkeztuko dizut: Pisani inspektorea, departamentu honetako arduraduna.*

FELETTI.- Atsegin handia da.

PISANI.- Atsegin handia neuretzat, andereño. *Eskua ematen dio.*

KOMISARIOA.- Eser zaitez, mesedez.

FELETTI.- Eskerrik asko. Axola ez badizue, lehenbailehen hasi nahi nuke. Jakingo duzuenez, nire egunkariak ez ditu gogo onez hartu berriki gertatutako gorabehera batzuen inguruan eman dituzuen argibideak.

KOMISARIOA.- Agian, zure egunkariak gogokoagoak ditu zurrumurruek egintza frogatuak baino. Nolanahi ere, zure esanetara gaude.

FELETTI.- Ederki.

PISANI.- Mirespen handiz irakurtzen ditut zure artikuluak. Garbi ageri dute nortasun handiko emakumea zarela, demokrazia-zalea eta maite dituzula egia eta justizia.

FELETTI.- Oso adeitsua zara, Pisani inspektorea. Hain zuzen ere, zeuretzat da nire lehen galdera. Has naiteke?

PISANI.- Mesedez.

FELETTI.- Zergatik deitzen dizute “leiho-inspektorea”?

PISANI.- Barkatu?

FELETTI.- *Paper bat irakurriz.* Hementxe daukat San Vittoreko kartzelan preso dagoen anarkista gazte batek idatzitako gutunaren ale bat. Hala dio: <Seigarren pisuko inspektoreak leihoan esertzera behartu ninduen hankak zintzilik nituela, eta zirikatatu egiten ninduen: “Salto egizu!”. Eta irainak esaten zizkidan: “Botazazu zeure burua behingo!” “Ez daukazu

potrorik!”. Eta bultza egiten zidan. Ni izu-izu eginda nengoen, eta hozka egin behar izan nion mihiari leihotik behera salto ez egiteko>.

PISANI.- Hori iraingarria da.

KOMISARIOA.- Zaude lasai, ez jaramonik egin. Marco kapitainak lagunduko digu.

FELETTI.- Zer esan duzu?

KOMISARIOA.- Ba, zuk garrantzi handiagoa ematen badiezu delinkuente batek esandako hitzei polizia-ofizial batek esandakoei baino, ez dugula izango zertaz hitz egin.

FELETTI.- Oso ondo.

EROA.- Komisario!

KOMISARIOA.- Baina baliteke nire lankideak laguntza eman ahal izatea. Gure artera gonbidatzeko atrebentzia izan dut. Erromako poliziaren laborategiko aditua da. Aurrera, kapitain. *Mozorroiturik sartzen da.* Marcantonio Bauzi Piccini kapitaina,

EROA.- Urte askoan, komisario.

KOMISARIOA.- ...Maria Feletti andereñoa.

EROA.- Atsegin handia da. Barkatu nire eskuaren zurruna: egurrezkoa da. Aljeriako oroigarria. Kontu zikina da. *Hanka ukitzen du.* Vietnam, txapel berdeak. Iraganeko pasadizoak. (“Glori, glori...”) Atsedean, ar! Ez erre, mesedez, egur lehor gehiegi dago hemen. Eser zaitez. Ez kezkatu niregatik, andereño, hor txokoan geratuko naiz.

FELETTI.- Beste galdera bat, inspektore. Espedientean, erorialdiaren parabola erakusten duen aditu-froga falta da.

PISANI.- Erorialdiaren parabola?

FELETTI.- Bai, ustezko suizidak erortzean egin zuen parabola.

KOMISARIOA.- Eta horrek zertarako balio du?

FELETTI.- Jakiteko anarkista, leihotik hegan atera zenean, bizirik ote zegoen ala ez; alegia, abiada hartuz salto egin zuen edo gorputz bizigabea ote zen eroritakoa. Eta baita ere argitzeko hausturarik edo lesiorik egin ote zuen besoetan eta eskuetan, hala gertatuko baitzen suizidak bere burua babesteko besoak aurreratu izan balitu inpaktuaren unean. Oso erreakzio arrunta da, erabat senezkoa.

PISANI.- Baina pentsazazu suizida batez ari garela, hil nahi duen gizon batez.

EROA.- Horrek ez dauka zerikusirik. Arrazoia eman behar diot andereñoari.

KOMISARIOA, PISANI.- Nola?

EROA.- Saiakuntza asko egin dira gai horren inguruan: suizidak hautatu eta leihotik behera jaurti zituzten. Frogatu ahal izan denez, den-denek — senak hala aginduta— aurreratu zituzten eskuak plost egiteko momentuan. Baina suizida hau desberdina zen, anarkista baitzen. Zergatik izango da, ba, harrigarria eskuak apartatzea inpaktuaren unean?

KOMISARIOA.- Ondo! Ederra erantzuna, kapitain! *Kolpe bat ematen dio.*

EROA.- Kontuz begiarekin.

KOMISARIOA.- Ze begi?

EROA.- Nirea: salto egingo dit, eta kristalezkoa da.

FELETTI.- Badago xehetasun harrigarri bat argitzea eskertuko nizuekeena. Sorospen-zerbitzuetan dei bat jaso zuten gau hartan bertan, hamabiak bi minutu gutxiagotan, komisaria honetatik anbulantzia bat eskatzeko. Baina lekuko guztiak bat datoz honetan: egintza hamabiak eta hiru minutuan gertatu zen. Laburbilduz: anbulantzia anarkista leihotik hegan irten baino bost minutu lehenago eskatu zuten. (“Volare, oh, oh”) Baten batek zuritu dezake aurreratze xelege hori?

KOMISARIOA.- Anbulantzia aurretiaz eskatzea ez da inongo delitua.

PISANI.- Maiz egiten dugu hori. Arreta-neurria da, eta, ikus dezakezunez, noiz edo behin asmatu egiten dugu.

KOMISARIOA.- Bestalde, litekeena da erloju guztiek ordu bera ez adieraztea.

PISANI.- Seguru lekukoek atzeratzen diren erloju horietakoak zituztela, alegia, aurreratzen diren horietakoak.

FELETTI.- Benetan bitxia erlojuen hekatonbea!

EROA.- Bitxia? Suitzan al gaude, ba? Hemen norberak nahi duen orduan jartzen du erlojua. Batek, bost minutu aurreraturik; beste batek, hiru minutuko atzerapenarekin. Herrialde hau artistaz gainezka dago, indibidualista amorratuz beterik. Italiarrak gara, eta konbentzio eta ohitura guztien kontrakoak.

PISANI.- Oso ondo, oso ondo, kapitain.

EROA.- Kontuz begiarekin! Zertaz ari ginen, andereño?

FELETTI.- Esaten ari zinen herri honetan konbentzioen kontrakoak garela denok. Eta arrazoia ematen dizut. Batez ere, epaileak. Izan ere, gogoak emandakoaren arabera erabakitzen dute ze kasu artxibatu; ahaztu egiten zaie zuzeneko lekukotasunak jasotzea; ez dute egiaztatzen zenbat denbora pasatu zen anbulantziari deitu zitzaionetik egintza gertatu zen arte; ez dute aditu-frogarik eskatzen erorialdiaren parabolari buruz... Huskeriak denak. Baina, agian, zuek azalduko didazue zer dela eta zeuzkan gorpuak harramazka haiek garondoan, inork ez baitu argitu horren zergatia.

KOMISARIOA.- Hara, aholku bat emango dizut, andereño: tentu handiz ibili.

FELETTI.- Mehatxua al da?

EROA.- Ez! Ezta inondik ere! Komisario, nik neuk behin baino gehiagotan entzun dut andereñoak azaldu berri duen bertsio hori.

KOMISARIOA.- Ze bertsio?

EROA.- Ba, diotenez, azken itaunketa egin zenean, bertako norbaitek, gauerdia baino minutu batzuk lehenago, urduritu eta kolpe bat eman zion garondoan.

FELETTI.- Aja!

EROA.- Tamalgarria benetan, baina egia.

PISANI.- Baina, erotu egin al zara?

EROA.- Bai horixe, hamasei aldiz. Seguraski, anarkistak erdi-paralizaturik gelditu eta nekez hartuko zuen arnasa. Orduan,

anbulantziari hots egin zioten. Bien bitartean, suspertu nahian ari zirela, pare bat agentek leiho aldera hurbildu zuen anarkista eta leihotik kanpora burua atera, gauaren aire freskoak bizkortu zezan. Eta, halako kasuetan sarritan gertatu ohi denez, eusten ziotenetako bakoitza fidatu egiten zen besteaz. “Neuk eutsiko al diot?” “Zeuk eutsiko al diozu?” Eta, zapla, behera erori zitzaien. Eta hori da hortik bolo-bolo dabilena.

FELETTI.- Bertsio horrek misterio asko argitzen ditu: anbulantziari aurretiaz egindako deia, gorputz bizigabearen erorialdia eta fiskalak erabili zuen hitz bitxia.

EROA.- Ze hitz? Argitu ezazu hori, nahikoa buruko min daukat jadanik eta.

FELETTI.- Fiskalak deklaratu zuen heriotza “ezustekotzat” hartu behar zela. Begira: ezustea, eta ez suizidioa. Alde handia dago. Kapitainak aditzera eman duenaren arabera, drama bai har daitekeela istripuztat.

KOMISARIOA.- Bikaina!

PISANI.- Zoragarria!

KOMISARIOA.- Hain zen erraza, eta...

EROA.- Ba, oraintxe erakutsiko dizut bertsio hori erabat defendaezina dela.

PISANI, KOMISARIOA.- *Ad libitum*. Nola?

FELETTI.- Jubilatuen bertsioa bezain defendaezina?

EROA.- Ze jubilatatu?

FELETTI.- Argibideetarako epaileak lekukotzat onartu ez zituenak. Jubilatuek adierazi zutenek, bonbak lehertu ziren egunean, tren-konpainiako langileak kartetan jardun zuen beraiekin batera.

EROA.- Eta epailearentzat zergatik ziren lekuko defendaezinak?

FELETTI.- Osasun eskasekoak eta oroimen txarreko agureak zirelako.

EROA.- Eta hori ez al da, ba, egia? Nola pentsa dezakegu adineko jubilatatu bat lekukoarena egiteko egoera psiko-fisikoan egon daitekeela?

FELETTI.- Eta zergatik ez?

EROA.- Baina zu ze mundutan bizi zara, andereño? Zuk ba al dakizu zer den langile jubilatatu bat?

FELETTI.- Aspertuta nago halakoak ikusten.

EROA.- Ziur al zaude? Nire ustez, zuk hobeto ezagutzen duzu Ekialde Ertaina gure auzune pobreak baino. Erretiroa hartzera iristen diren langileak zukurik gabeko limoiak dira, erreflexurik ez duten zizareak, benetako hondakinak.

FELETTI.- Uste dut oso egoera beltza deskribatu duzula.

EROA.- A, bai? Ba, zoaz jubilatuek kartetan jarduten duten taberna horietako batera, eta zeuk esango didazu. Ikusiko duzu han nola ematen duten eguna: liskarrean, elkarri irainak esanez eta jokoan, ze karta atera dituzten gogoratu ere egin gabe. Agente, zer, partidatxo bat epaitegira lekuko defendaezinak garelako frogatzera joan aurretik? Zerri halakoa, zazpiko kopa neuk bota dut lehen.

AGENTEA.- Zuk? Ez, hori beste partida batean izan da, ez honetan.

EROA.- Ze partida? Hau da-eta lehena.

AGENTEA.- Ergela zara, gero.

EROA.- Ergela zeu izango zara: zazpikoa gorde egin duzu triunforako.

AGENTEA.- Ze triunfo? Partida honetan txotekoa da eta.

EROA.- Ze txoteko? Berriro diotsut: zazpikoa da, eta neuk bota dut lehen.

AGENTEA.- Ba, ohartu gabe, beste mahai batean arituko zinen jokoan.

EROA.- Baina, zuk zer uste duzu, ez dakidala zertan nabilen, ala?

AGENTEA.- Bai, pitzatzen hasita zaude.

EROA.- Ni pitzatzen hasita? Baina, zuk ba al dakizu norekin ari zaren?

AGENTEA.- Zer dakit, ba, nik! Eta, zuk, ba al dakizu norekin ari zaren?

EROA.- Ezta nik ere. Eta zer? *Agurra egiten dute. Besteak txaloka hasten dira.*

KOMISARIOA.- Oso ongi, agente, aintzat hartuko ditut zure merituak.

PISANI.- *Eroari.* Kapitain, bizkorra zara, gero. *Kolpe bat ematen dio.*

EROA.- Kontuz!

PISANI.- *Beste kolpe bat.* Sekulakoa! *Zerbait lurrera erori dela entzuten da.*

EROA.- Ikusten? Kristalezko begia saltarazi didazu.

PISANI.- Barkatu... Berehalaxe aurkituko dizut. *Keinu bat egiten dio agenteari.*

FELETTI.- Komedia asko gustatu zait. Baina, haien errua al da horrela amaitzea?

EROA.- Ez, gizartearen errua da. Komisario, lagunduko diguzu nire begia bilatzen? *Komisarioa makurtu egiten da.* Baina ez gaude hemen kapitalismoa epaitzeko, baizik eta eztabaidatzeko jubilatua lekuko fidagarriak diren ala ez.

KOMISARIOA.- Oso ongi, kapitain.

EROA.- Jubilatu bati burua nahasten bazaio esplotatu egin dutelako edo lan-istripu baten erruz, ez zaigu interesatzen. Non demontre sartu da begi malapartatu hori?

FELETTI.- Zure baimenarekin, lagundu egingo dizuet.

EROA.- Eskerrik asko. Esaten ari nintzaizun bezala, gizarte honetan modurik ez baldin baduzu oroimenerako hain beharrezkoak diren bitaminak, proteinak, gluzidoak, lipidoak eta kaltzio-fosfatoa lortzeko, nirea al da, ba, errua? Okerrago zuretzat: jokoz kanpo geratzen zara, bigarren mailako herritarra zara.

FELETTI.- Ikusten duzu? Klase-borrokarekin topo egin dugu.

EROA.- Eta nork esan du bestelakorik? Onartu egiten dut, egia da, klaseetan banaturik dagoen gizarte batean bizi gara. Klaseak borrokan! *Isilunea. Atea jotzen dute.*

PISANI.- Aurrera. *Bertozzo sartzen da, kaxa bat eskuan eta adabaki bat begian duela.*

AGENTEA.- Ai!

KOMISARIOA.- A, Bertozzo inspektorea. Sartu, sartu.

BERTOZZO.- Barkatu. Enbarazurik egiten dizuet? Hau uztera etorri naiz, besterik ez.

KOMISARIOA.- Zer da?

AGENTEA.- Nire sudurra.

BERTOZZO.- Ez, Nekazaritza Bankuan eztanda egin zuen lehergailuaren kopia bat.

KOMISARIOA.- Oso ongi. Uztazu hor, mahai gainean, mesedez.

PISANI.- Aurkitu egin dut!

EROA.- Non? *Bertozzo irristatu egiten da, eta lehergailua eskuz esku pasatzen da.*

KOMISARIOA.- Bonba!

EROA.- Nirea!

PISANI.- Nirea!

BERTOZZO.- Deabru madarikatua! Zer dela eta irristatu naiz?

EROA.- Nire begiatatik. Zurea al da hau? *Bonba botatzen dio.*

BERTOZZO.- Ez kezkatu, desaktibaturik dago.

FELETTI.- Jainko maitea, hau beldurra!

PISANI.- *Begia itzultzen dio.* Barkatu, hau zurea da.

EROA.- Hara, begira, zikin-zikin geratu da. Agente, ekarriko didazu baso bat ur, garbitzeko?

AGENTEA.- Horixe bakarrik behar genuen, epai..., pitain, pitain, pitain.

BERTOZZO.- *Eroari.* Zure aurpegia ezaguna egiten zait.

EROA.- Biok begian daramagun partxeagatik izango da. *Barre egiten dute.*

KOMISARIOA.- Zuen baimenarekin, neuk egingo ditut aurkezpenak. Bertozzo inspektorea, Marcantonio Bauzi Piccini kapitaina, Erromako laborategikoa.

BERTOZZO.- Piccini? Ezinezkoa, nik ezaguna dut Piccini kapitaina.

PISANI.- *Kolpe bat ematen dio.* Ez duzu ezagutzen!

BERTOZZO.- Zu berriro? Jo egin nauzu berriz ere. Zergatik?

KOMISARIOA.- Nahikoa da. Emaiozue eskua elkarri, eta hemen ez da ezer gertatu.

BERTOZZO.- Nola ez dela ezer gertatu? Jakingo banu, sikiera, zergatik jarri didan hala begia.

PISANI.- A, ez al dakizu? Eta puzkerra?

KOMISARIOA.- Jaunak, mesedez!

PISANI.- Eta puzkerra?

BERTOZZO.- Ze puzker?

KOMISARIOA.- Isildu behar al duzue? Bisita dugu!

EROA.- Horixe.

BERTOZZO.- Ados, baina jaun hau ez da Piccini...

KOMISARIOA.- *Kolpea*. Piccini kapitaina da!

BERTOZZO.- Baina nik ezagutu egiten dut!

PISANI.- Ixo!

BERTOZZO.- Baina, txantxetan ari zarete, ala?

EROA.- Ez al dizute esan isilik egoteko?

BERTOZZO.- Baina, zertan ari zara?

EROA.- Bera izan da.

KOMISARIOA.- Gero kontatuko dizut. Orain Feletti andereñoa aurkeztu nahi nizuke, kazetaria. Ez dakit argi adierazi dudan.

BERTOZZO.- Urte askotako. Bertozzo inspektorea. Ez, ez dut ezer ulertzen. *Kolpeak*. Ikusten al duzu, komisario? Bera hasten da beti.

FELETTI.- O! Hori al da portaera egokia?

EROA.- Bera izan da.

KOMISARIOA.- Nola esan duzu? Bertozzo! Andereñoa oso elkarrizketa garrantzitsua egitera etorri da. Ulertzen duzu?

BERTOZZO.- Baina, zer gertatzen da? *Kolpea Eroari*.

EROA.- Aj!

AGENTEA.- Zer duzu?

EROA.- Begia irentsi dut. Buruko mina kenduko balit, gutxienez!

KOMISARIOA.- Bertozzo gure aditua da, balistikan eta lehergaietan.

FELETTI.- Egin niezazkioke galdera batzuk Bertozzo inspektoreari?

BERTOZZO.- Jakina.

FELETTI.- Eskertuko nizuke zalantza bat argitzea. Lehen aditzera eman duzunez, kaxatxo hori Nekazaritza Bankuan erabili zen bonbaren kopia da...

KOMISARIOA eta PISANI.- Mmmmmmm!

BERTOZZO.- Gutxi gorabeherako kopia bat, kontuan hartzen badugu lehergailu guztiek egin zutela eztanda.

FELETTI.- Dena dela, bonba batek ez zuen eztanda egin...

KOMISARIOA eta PISANI.- Mmmmmmm!

BERTOZZO.- Hala da, Merkataritza Bankukoak...

FELETTI.- Argitu diezadakezu zer dela eta, desaktibatu eta laborategira eraman beharrean —normala litzatekeen bezala, azterketa sakona

egitearren—, aurkitu zuten poliziek ziztu bizian mendira joan, lur azpian sartu eta zartarazi zuten? *Mmmmmm! gehiago.*

BERTOZZO.- Barkatu, baina uste dut ez dizudala ulertzen.

FELETTI.- Esan nahi dut, bonba behin suntsitu eta gero, desagertu egiten dela hiltzaileen sinadura.

BERTOZZO.- Zalantzarik gabe.

FELETTI.- Aditua dudanaren arabera, esaera hau ohikoa da zuen artean: “Esadazu nola egiten duzun bonba bat, eta esango dizut nolakoa zaren”.

BERTOZZO.- Bai, batzuetan esaten dugu hori.

FELETTI.- Eta behin lehertuz gero, desagertu egiten da arrasto hori?

BERTOZZO.- Hamarretik bederatzi alditan.

EROA.- Ondo baderitzozu, neuk azalduko dizut. Bertozzo inspektorea, laborategiko arduraduna naizen aldetik...

BERTOZZO.- Zertan ari zara? Ez ukitu! Arriskutsua da!

EROA.- Ez kezkatu. Nahiko segurua da, Feletti andereñoa.

AGENTEA.- Ba al dakizu zertan ari den, jauna?

EROA.- Ideiarik ere ez.

BERTOZZO.- Esan dizuet morroi hau ez dela... *Kolpeak.* Ai!

PISANI.- Badakigu.

BERTOZZO.- Orduan, nor da? *Kolpeak*. Ai!

EROA.- Ikusten duzu, andereño? Era honetako bonba bat oso konplexua da. Begira zenbat hari dituen, bi detonagailu, erreguladorea eta kolpekaria, azkoinak eta torlojoak. Oso arriskutsua da: izan dezake ezkutuan eragin atzeratuzko bigarren sistema bat, piezaz pieza desmuntatu ezean nekez aurki daitekeena.

KOMISARIOA.- Benetako teknikaria dirudi.

EROA.- Eta desmuntatzen duzun bitartean, BUM! egin dezake. Horregatik, nahiago izaten dugu guk geuk leherrarazi triskantza eragin baino lehen. Ulertzen duzu?

FELETTI.- Bai, konbentzitu egin nauzu.

KOMISARIOA.- Baita neu ere.

EROA.- Neure burua ere konbentzitu dut.

PISANI.- Bikaina. Oso ideia ona! *Eskua ematen dio, eta bere eskuarekin geratzen da*. A!

EROA.- Esan dizut lehen ordezkoa nuela!

KOMISARIOA.- Esantzazu zerbait, Bertozzo.

PISANI.- Erakutsi ezazu ez gaudela lotan.

BERTOZZO.- Jatorrizko bonba oso konplexua zen.

FELETTI.- Hau baino konplexuagoa?

BERTOZZO.- Askoz konplexuagoa. Dударik gabe, bonba hura goi-mailako teknikariek egin zuten, benetako profesionalak. *Kolpeak*.

FELETTI.- Profesionalak? Militar batek, agian?

BERTOZZO.- Litekeena da. *Kolpeak*. Baina zer esan dut, ba?

FELETTI.- Ederki, ederki. Beraz, zuek, jakinik ere halako bonbak egin eta maneatzeko profesional baten —areago, militar baten— eskarmentua eta abilezia behar direla... Hori jakinik ere, ez zenieten aztarna haiei jaramonik egin —esan beharrik ez dago zer motatako eta koloretako aztarnak ziren—, eta etsi-etsian anarkista-talde bakan eta bakarti baten bila oldartu zineten, Italia osoan dagoen taldexkarik tamalgarrienaren bila, hain zuzen.

EROA.- Hori egia litzateke, baldin eta ontzat emango bagenu Bertozzo inspektorearen bertsioa. Baina kontua da ezin dugula bertsio hori aintzakotzat hartu; izan ere, ez gaude benetako lehergailu-aditu baten aurrean. Harentzat hobbya baino ez da.

BERTOZZO.- Nola? Zer diozu? Eta zuk zer dakizu? Nor zara zu? Esan behar al didazue behingoz nor...?

KOMISARIOA.- Zuk arrazoi zenuke taldexka tamalgarriaren auzi horretan, ez balitz izan, hain zuzen ere, estalki horixe asmatu zutela gu nahasteko.

FELETTI.- Eta zer aurkitzen dugu estalki horren atzean? Neuk esango dizut. Bandak dituen hamar kideetatik, bat zuen zerbitzura dagoen espioia da, beste bi brigada kriminalaren detektibeak dira, eta bada laugarren kide bat, faxista erromatarra bera, oso ospetsua Italia osoan, anarkista nahasi horientzat izan ezik. Portzierto, agente-espioi asko dituzue kamuflaturik manifestazioetan?

KOMISARIOA.- Ez daukat inolako eragozpenik deklaratzeko baietz, espioi asko ditugula han eta hemen, alde guztietan ia-ia.

PISANI.- Hori ez al da gehiegitxo, komisario? Bai, beraiek dira gure begiak eta belarriak.

KOMISARIOA.- Gau honetan bertan ere, baditugu gure artean haietako batzuk. Frogarik nahi al duzu? *Txalo jotzen du.*

AHOTSAK.- Arazorik, komisario? Zure aginduetara, komisario.

EROA.- Lasai. Horiek aktoreak dira. Benetako agenteak eserita daude eta isil-isilik.

KOMISARIOA.- Ikusten duzu? Konfidenteak dira gure indarra.

PISANI.- Haiei esker daukagu dena kontrolpean.

FELETTI.- A, bai? Eta nola liteke, dena kontrolpean baldin baduzue, anarkista koitaduen taldetxo hark hain operazio konplexua antolatu ahal izatea, zuek konturatu ere egin gabe, ezertxo ere egin gabe sarraskia saihesteko?

PISANI.- Tira, egia esan, gure agente espioia egun haietan taldetik kanpo zebilen.

KOMISARIOA.- Egia da.

EROA.- Desenkusa-txartela ere ekarri zigun, gurasoek sinatuta.

BERTOZZO.- Ziur naiz ezagutzen dudala.

FELETTI.- Eta beste konfidentea, faxista hura? Erromako epailearen ustez, bera izan zen arduradun, antolatzaile eta bultzatzaile nagusia.

BERTOZZO.- Ziur naiz nik ikusi egin dudala nonbait morroi hau.

KOMISARIOA.- Argitu behar dizut aipatu duzun faxista hori ez dela gure konfidentea.

FELETTI.- A, ez? Eta zer dela eta argitaratu du prentsak haren argazkia Erromako Komisaria Nagusiaren eraikinean lasai-lasai paseatzen?

EROA.- Oso ondo, andereño. Komisario, aitortu behar duzu oso azkarra dela.

FELETTI.- Eskerrik asko. O!

BERTOZZO.- Ni nonbait ikusita nago morroi hori.

FELETTI.- Zure eskual!

EROA.- Badaukat beste bat, zuretzat hori.

BERTOZZO.- Ezagutzen dut. Ziur naiz ezagutzen dudala.

KOMISARIOA.- Geuk ere bai.

BERTOZZO.- Eta zergatik uzten diozue...? Ai!

FELETTI.- Esku hau emakumezkoarena da!

EROA.- Ez, unisex.

FELETTI.- Entzuidazu. Azken hamalau hilabeteotan, ehun eta hirurogeita hamahiru atentatu egin dira lehergailu bidez, bat hiru egunean behin. Frogatu ahal izan denez, haietako ehun eta bi neofaxistek egindakoak izan dira. Bestalde, zantzu garbiak daude

pentsatzeko gainerako beste hirurogeita bat atentatuetatik erdia baino gehiago faxistei edo talde paramilitar eskuindarrei lepora dakizkiekeela. Ados al zaude, komisario?

EROA.- Emakume hau izugarria da.

KOMISARIOA.- Bai, gutxi gorabehera, zuzenak dira zenbaki horiek. Zuk zer deritzozu, inspektore?

PISANI.- Begiratu beharko nuke, baina gure datuekin bat datozela uste dut.

FELETTI.- Primeran. Begirazazu, bide batez, atentatu haietatik zenbat antolatu ziren talde ezkertiarrek susmagarri bihurtzeko asmoarekin.

EROA.- Noraino iritsi nahi duzu taktika probokatzailer horiekin, Feletti andereñoa?

PISANI.- Azpisugea halakoa!

EROA.- Zer esan nahi duzu? Lau anarkista gizajoren atzetik ibili ordez, hobe genukeela arrasto fidagarriagoen bila saiatzea, alegia, herrialde honetako industriari boteretsuek eta CIAk finantzatzen dituzten erakunde paramilitar faxisten bila...

KOMISARIOA.- Nola?

PISANI.- Ez kezkatu, ezagutzen dut zure teknika hori: jesuiten dialektika.

EROA.- Esan nahi duzu bide horri jarraituz korapiloa askaturik genukeela dagoeneko?

KOMISARIOA.- Erotu egin al zara?

BERTOZZO.- Erotu?

EROA.- Esan nahi duzu ikertu beharko genukeela harremanik ba ote dagoen eskuindarren eta gobernuko zenbait sailen artean? Aztertu beharko genukeela eskuindarrek ba ote duten loturarik poliziarekin berarekin?

BERTOZZO.- Erotu...

EROA.- Hori egin izan bagenu, auskalo zer ez ote genuen aurkituko.

KOMISARIOA.- Jesuiten dialektika, beraz.

PISANI.- Tira, komisario, ni...

EROA.- Ondo da, Feletti andereñoa, arrazoi duzu.

KOMISARIOA.- Nola?

FELETTI.- Dudarik gabe, harrigarria da polizia baten ahotik entzutea hitz horiek.

BERTOZZO.- Bera da! Ero madarikatu hura! Komisario, badakit nor den hori.

KOMISARIOA.- Ederki, ba, isildu zaitez.

BERTOZZO.- Ez da inongo polizia. Mozorroturik dago!

PISANI.- A ze nobedadea! Ez diezazula entzun marimatxarda horrek.

BERTOZZO.- Baina, burutik eginda dago!

PISANI.- Zu bai zaudela burutik eginda. Isildu behar al duzu!

EROA.- Zu kazetaria zara, eta izugarri gustatuko litzaizuke halako eskandaluaren berri ematea. Baina, zer lortuko zenuke? Tartean sartuta dabilzan izen garrantzitsuen zerrenda luze bat, edota ongi merezitako erretiroa hartu aurretik kaleratuak izango diren hainbat eta hainbat polizia-buru.

FELETTI.- Eraitza ona lanegun baterako.

EROA.- Dena dela, andereño, Estatuak bere horretan segituko du. Arauaren salbuespentzat aurkeztuko du ustelkeria. Nahiz eta ustelkeria bera den araua.

BERTOZZO.- Oraintxe ikusiko duzue arrazoi dudala. *Adabakia kentzen dio begitik*. Ikusten? Begia dauka.

KOMISARIOA.- Erotu egin al zara? Izango ez du, ba.

BERTOZZO.- Eta zertarako dauka partxe hori?

PISANI.- Zeuk ere baduzu begia partxearen azpian, eta inork ez dizu kentzen.

FELETTI.- Gustu hutsagatik erabiltzen duzu adabakia?

EROA.- Ez, dibertsio hutsagatik. Zertaz ari ginen?

FELETTI.- Eskandaluaz.

EROA.- A, bai, eskandalua! Hori bai dela atsegingarria. Korrupzio honi darion kiratsa bezalakoa da. Eskandalua da pozoirik txarrenaren kontrako antidotoa: jendearen kontzientzia-hartzea. Herriak ez du eskandalurik nahi. Lana, etxea eta osasuna nahi ditu. Zer eskaintzen

diogu? Erreformak, erreforma ugari. Ito egingo ditugu hainbeste erreformarekin. Edo, hobeto esanda, erreformarako promesekin; izan ere, ez dugu inolako asmorik emandako hitza betetzeko.

FELETTI.- Primeran. Eta zer egin behar dugu?

EROA.- Egiaren berri eman beti. Gai honetaz idazten baduzu, pentsa ezazu ez garela ari kasu bakan bati buruz. Korrupzioa saihestezina da klase batek beste bat esplotatzea oinarriztat duen gizarte batean. Esantzazu gehiegikeria horiek Estatuaren zinismoa adierazten dutela, eta betea izango duzu zeure eginkizuna.

FELETTI.- Baina, zu, nor zara?

BERTOZZO.- Aja! Begira! Bere hanka! Ordezkoa da!

PISANI.- Jakina ordezkoa dela.

KOMISARIOA.- Ordezko hanka da.

BERTOZZO.- Ordezko hanka faltsua.

EROA.- Gaztainondoa, zehatz esateko.

BERTOZZO.- Baina, ez al duzue ikusten belaunari loturik daramala?

EROA.- Eskerrik asko, inurritzen ari zitzaidan izterra.

FELETTI.- Zertara dator halako zalaparta txorakeria horrengatik?

BERTOZZO.- Ez al zara konturatzen frogatu nahian nabilela ez dela ez elbarria, ez kapitaina, ez ezer? Iruzurgilea da.

FELETTI.- Ea, ba, baten batek esaten didan nor den.

BERTOZZO.- Ba, besterik gabe...

KOMISARIOA.- Barkatu, telefonoz deitu diote.

PISANI.- Baina, izorratu egin nahi gaituzu, ala?

KOMISARIOA.- Ez al duzu ulertzen sekretua dela? Kazetariak usaina hartzen badio ikerketari, gureak egin du.

BERTOZZO.- Ze ikerketa? Jakingo nuke gustura...

PISANI.- Ixo, eta hitz egizu telefonoz.

BERTOZZO.- Bai, esan? Nor da?

FELETTI.- Hau da bitxikeria hau! Komisario, ez kezkatu, kapitainak, edo hobeto esanda, kapitain ohiak dena kontatu dit.

KOMISARIOA.- Kontatu egin dizula?

FELETTI.- Bai, benetan nor den esan dit.

PISANI.- Esan egin diozu!

EROA.- Ezin nuen jada gezurretan jarraitu. Gainera, zerbait susmatzen hasita zegoen.

KOMISARIOA.- Agindua emango zenion, noski, horren berri ez argitaratzeko.

FELETTI.- Horixe argitaratuko dudala! Komisarian apezpiku bat topatu nuen kaletar jantzita.

DENOK.- Apezpikua!

EROA.- Bai, barkaidazue ezkutatu izana.

BERTOZZO.- Horixe baino ez genuen behar! Orain apezpikua!

KOMISARIOA.- Nahikoa da! Nazka-nazka eginda nauka istorio honek.

EROA.- Zuen baimenarekin, neure burua aurkeztuko dizuet: Dominique Bernier monsinorea, Vatikanok bidalia behatzaile gisa Italiako poliziarekin batera jarduteko.

BERTOZZO.- Poliziarekin batera?

EROA.- Bai, Aita Santuaren biziaren kontrako atentatua gertatu zenez geroztik, ezinbestekoa dugu prebentzioa, harremanak egitea.

BERTOZZO.- Hori gehiegizkoa da. Orain apezpiku-polizia.

PISANI.- Badakigu gezurra dela, gu salbatzeko asmotan ari da.

BERTOZZO.- Gu salbatu? Zer nahi duzu, zure arima salbatzea?

PISANI.- Ixo, eta muin egiozu eraztunean, astakiloa!

FELETTI.- Ez dit sinetsiko berorren gorentasunak, baina arestian, nire eginkizunez hitz egin didanean, pentsatu dut —eta barkatuko dit berorrek—: “Apaiza dirudi”.

EROA.- Ez daukat zer barkaturik. Horixe naiz eta. San Gregorio Magnok, Aita Santu hautatu eta lasterrera, eskandalu larriak ezkutatzen ari zirela ohartu eta esaldi famatu hura idatzi zuen: “Nolimus aut velimus, omnibus gentibus, justitiam et veritatem”.

FELETTI.- Barkatuko dit berorrek, baina bati suspenditu dut latina.

EROA.- Hala esan zuen: Nik Justizia eta Egia ezarriko ditut, eta lehertu daitezela eskandaluak. Zorionekoa izan dadila eskandalua, huraxe baita Estatuak duen botere sendoaren oinarria. Amen.

FELETTI.- Interesgarria benetan. Axola dio berorri idazteak?

KOMISARIOA.- Baina, zertan ari zara? Zergatik hautsi duzu presidentearen argazkia? Ez al dakizu delitua dela hori?

PISANI.- Barkatu, komisario, baina hain gauza xebreak idazten ditu.

KOMISARIOA.- Ez dizu lotsarik ematen?

BERTOZZO.- Gora eskuak! Jar zaitetze denok hormari bizkar emanda, edo tiro egingo dut.

PISANI.- Erotu egin al zara?

BERTOZZO.- Gora eskuak esan dut. Denok! Zuk ere bai, komisario. Edozer egiteko kapaz naiz, gero.

FELETTI.- Jainko maitea.

KOMISARIOA.- Lasai, Bertozzo.

BERTOZZO.- Lasai zu. Ni primeran nago. Oso ondo, andereño, zeurea duzu ohorea. Jarrizkiozu esku-burdinak mundu guztiari, eta lotu denak leihoaren langetan. Sentitzen dut, jauna, sentitzen dut, ez nuen beste modurik ikusten zuen arreta lortzeko.

KOMISARIOA.- Bertozzo, egiten ari zarena txatxukeria da.

BERTOZZO.- Zuk, mesedez, esaiezu jaun horiei nor zaren benetan. Oraintxe bertan, edo tiro egingo dizut bestela.

EROA.- Atsegin handiz.

PISANI.- Ez, etzazu halakorik egin.

KOMISARIOA.- Ez al duzu ikusten alferrik galduko duzula dena?

EROA.- Hitzez bakarrik esanda ez didate sinistuko.

BERTOZZO.- Erakutsiezu zeure dokumentazioa. Baina tentu handiz, zelatan naukazu eta.

EROA.- Tori, irakurri, ikus eta ikas ezazue.

BERTOZZO.- Zu zoaz hara, mahai aldera!

KOMISARIOA.- Asaldura paranoikoak jota dagoen marrazketa-irakaslea.

PISANI.- Ospitale psikiatrikoak Imolan, Vogueran...

KOMISARIOA.- Varese, Gorizia, Parma.

AGENTEA.- Eroetxeen arteko Italiako Giroa dirudi.

BERTOZZO.- Ikusten duzue, ordubete daramat hori adierazi nahian.

PISANI.- Histriomania, "histrioi" grekotik dator, aktore.

KOMISARIOA.- Hamabost elektroshock, hogeitun eguneko isolamendua.

AGENTEA.- Piromanoa. Hamar sute.

KOMISARIOA.- Eroa da.

BERTOZZO.- Bai, jauna.

PISANI.- Nor? Hori? Zer esan nahi duzu, buru-gaixoa dela eta gu ikertu behar gintuen epailearen plantak egiten aritu dela?

BERTOZZO.- Bizkorra zara, gero. Bai, maniakoa da.

KOMISARIOA.- Nola jarri gaituen pentsatzen dudanean...

PISANI.-Eta kantarazi egin digu.

EROA.- Ba, hori ez da ezer kontuan hartzen badugu nola jarriko zaituztedan.

KOMISARIOA.- Zer?

EROA.- *Grabagailua ateratzen du.* Hementxe daukat dena. Hona iritsi nintzenetik esan duzuen guzti-guztia.

KOMISARIOA.- Erabiltzazu pistola hori, Bertozzo. Hiltzazu!

EROA.- Nik ez nuke halakorik egingo.

FELETTI.- Ene Jainkoa: bonba.

KOMISARIOA.- Etzazu hori sinetsi, Bertozzo. Badakigu denok desaktibaturik dagoela.

EROA.- Ez zaitetz mugitu, edo birrindurik geldituko gara guztiok.

BERTOZZO.- Zertan ari zara? Ez izan memeloa.

EROA.- Eroa naiz, baina ez memeloa.

PISANI.- Ez dauka detonagailurik, ezin du leherrarazi.

EROA.- Nahiago duzu zerorrek egiaztatu? Jaitsi arma hori. Badakit txepel handia zarela, baina tresna hau ezagutuko duzu, behintzat.

BERTOZZO.- Detonagailu akustikoa. Nondik atera duzu?

EROA.- Hemendik. Denetik daukat. Uztazu pistola hori. Orain zoaz haiengana.

KOMISARIOA.- Zer egingo duzu grabazio horrekin?

EROA.- Ehunen bat kopia, eta handik eta hemendik zabaldu. Eskandalu polita izango da.

PISANI.- Ezin duzu hori egin. Gure deklarazioak faltsutuak izan dira, distortsionatuak, epaile faltsu gisa egin dizkiguzun probokazioek eraginda.

EROA.- Hemen eskandaluak inporta du. Herri italiarrak aldarrika dezala behingoz: “Kakaz lepo eginda gabiltza, eta harro-harro gaude horregatik”. Sudur azpian zer duen dakiena duintasunez ibiltzen da beti.

PISANI.- Egintzazu gogoak ematen dizuna, baina deskonekta ezazu bonba hori.

EROA.- Ez, hementxe utziko dut zuekin. Irten aurretik, palankari eragingo diot. Zirkinik txikiena ere eginez gero, pikutara joango da dena. Sentitzen dut, baina ezin dizuet nire atzetik etortzeko aukerarik eman. Egun eta erdi beharko dut kopiak egin eta banatzeko.

KOMISARIOA.- Zertan ari zara?

EROA.- Bonbak bost minutu barru egingo du eztanda.

PISANI.- Ez!

EROA.- Bai!

AGENTEA.- Lagundu.

FELETTI.- Burutik eginda al zaude?

EROA.- Zertarako erantzun horri.

FELETTI.- Ezin duzu Justizia zeure gogara erabili.

EROA.- Ez daukat beste irtenbiderik.

FELETTI.- Justizia ezartzeko, auzitegiak daude.

KOMISARIOA.- Horixe.

PISANI.- Oso ongi, andereño!

EROA.- Arrazoi duzu, baina sentitzen dut. Ez daukat denbora alferrik galtzerik.

FELETTI.- Zuk hil egin nahi dituzu, baina ez zara haien baino hobea. Jokabide horrekin demokrasiari diozun mespretxua erakusten duzu, ez besterik.

KOMISARIOA.- Oso ongi.

AGENTEA.- Mesedez.

EROA.- Zuk sinesten al duzu demokrazia burgesean? Irensten al duzu auzitegiek independentzia dutelako kontu hori?

FELETTI.- Barkatu, baina esan behar dizut kapitalismoa...

PISANI.- Jota zaudete? Honek minutu gutxi barru egingo du eztanda, eta zuek hor politikaz eztabaidatzen!

KOMISARIOA.- Feletti andereñoa, egizu zerbait.

AGENTEA.- Lagundu.

EROA.- Absurdoa da demokrazia burgesa alda daitekeela pentsatzea. Langileek bide bakarra dute askatasuna lortzeko: Estatu kapitalista suntsitzea.

FELETTI.- Zu fanatiko hutsa zara, estremista bat.

PISANI.- Bi minutu!

DENAK.- Lagundu!

FELETTI.- Ezin dizut onartu halako krimena egitea.

EROA.- Ez daukazu geldiarazterik.

FELETTI.- Ederki, hil nazazu neu ere. Hementxe geratuko naiz.

BERTOZZO.- Bikaina.

EROA.- Andereño, ondo pentsatu.

FELETTI.- Ez duzu adorerik izango hori egiteko.

EROA.- Eta zu? Hementxe dituzu esku-burdinen giltzak. Ni banoa. Egin ezazu nahi duzuna. Salba ditzakezu gaizkile hauek bonba leihotik behera botaz, adibidez. Lastima, leihoa jendea dabilen kale batera begira egotea.

PISANI.- Minutu bat!

EROA.- Askatu nahi baduzu. Idatzi zeure artikulua. Baina pentsa ezazu atzetik etorriko zaizkidala eta ebidentzia ere nirekin batera hilko dela. Askatzen ez badituzu, nire konplize bihurtuko zara, bat egingo duzu iraultzaren lerroekin. Zeureak dituzu.

BERTOZZO.- Bizkor, giltzak.

PISANI.- Epaiketa egin diezagutela! Edozer gauza!

KOMISARIOA.- Andereño, bizkor, mesedez.

AGENTEA.- Lagundu.

EROA.- Ikusten duzue: erabaki bat hartu beharra dauka. Zenbait arazo ezin dira pixkana-pixkana konpondu, are gutxiago hogeita hamar segundo baino ez duzunean. Ikus dezagun zer erabakitzen duen. Agur! *Eztanda*. Horri deitzen diogu amaiera zoriontsua. Nolanahi ere, pentsatzen dut zuetako askorentzat oso panfletarioa izango dela. Gainera, ez da sinesgarria Feletti andereñoak, hain erreformista ona izanik, aukerarik ez uztea garbitasuna eta legearen inperioa garaile atera daitezen. Beraz, ikus dezagun beste bertsio bat. Zeureak dituzu.

BERTOZZO.- Bizkor, giltzak.

PISANI.- Epaiketa egin diezagutela! Edozer gauza!

KOMISARIOA.- Andereño, bizkor, mesedez.

AGENTEA.- Lagundu.

FELETTI.- Bizkor: denbora gutxi daukagu.

AGENTEA.- Jainkoak bedeinka zaitzala.

KOMISARIOA.- Ontasunaren aingeru bat da.

PISANI.- Otoitz egingo dut zure alde nire bizitzako egun guztietan.

BERTOZZO.- Saria merezi duen salbatzailea.

KOMISARIOA.- Baina honek den-dena daki.

BERTOZZO.- Azkar.

KOMISARIOA.- Tira, goazen hemendik!

FELETTI.- Lagundu! Hiltzaileak! Eeeez!

EROA.- Jainkoarren! Ikusten duzue. Edozein modutara ere, erabakiren bat hartu beharko dute. Gabon.